

GAIA: ERDITZEAR GARA • ESPERIENTZIA: ETA IPUINAK ANTZERKI BIHURTU  
ZIREN • EKARPENAK: ARRETA GABEZIA • GALDEIDAZUE: IÑAKI GARCIA •  
HEZEGUNEETAN DAGO ABERASTASUNA • ATZEKO ATETIK: XABI ZABALA

**hh**  
hik hasi

**167**

4 EURO • 2012KO APIRILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA

HAURREN HEZIKETARAKO EGUNEROKO GIDA 1. ALEA

**Hazi Hezi**

*GAIA*


**Etxerako aldizkaria  
sortzear gara**

# SENTIPUINAK

BEGOÑA IBARROLA



NEU NAIZ HANDIENA



KOXXOR KALE-TXAKURRA



XIRTO ETA ERREGE  
HITZONTZIA



ZIZTULI ETA PANTXINET

Emozioak sentitzeko eta ulertzeko bi ipuin berri.  
Ausardia eta erruduntasuna, zer dira?



ZEUREA DA ERRUA



AUSARTEN KLUBA

**elkar**

[www.elkarargitaletxea.com](http://www.elkarargitaletxea.com)

# aurkibidea



**8**  
gaia

## ERDITZEAR GARA

*Hik Hasi* aldizkariaren osagarri izango da, baina etxeko komunitate osoari zuzenduko zaio *Hazi Hezi*, gurasoetatik hasi eta aitona-amonenganaino, haur eta helduagoen heziketa integral, aske, kritiko eta maitekorra nahi duten pertsona guztientzat.



**16**  
elkarrizketa

## MARIA J. LOPEZ

Maria J. Lopez neurobiologoak eskola-porrota saihesten laguntzen die haurrei, Madrilgo Neocortex Antolaketa Neurologikoaren zentroan. Horrez gain, garuneko arazo larriagoak dituzten haurrekin ere egiten du lan.

**5** editoriala

**6** kronika

**8** gaia

**ERDITZEAR GARA. HAZI HEZI**

**16** elkarrizketa

**MARIA J. LOPEZ.** Madrilgo neurobiologoa.

**24** esperientziak

Eta ipuinak antzerki bihurtu ziren.

**27** ekarpenak

Arreta gabezia ikasgelan.

**30** galdeidazue

Nola garatzen da 8 eta 30 hilabete bitarteko haur euskaldunen komunikazioa?

Iñaki Garcia

**33** berriak

**40** nora joango gara?

Ataria interpretazio-zentroa: hezeguneetan dago lurraren eta uraren aberastasun guztia.

**42** Atzeko atetik

Xabier Zabala. Musikaria eta konpositorea.

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com); Posta Elektronikoa: [hikhasi@hikhasi.com](mailto:hikhasi@hikhasi.com); Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Hik Hasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2012-03-22). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Euskarak merezi du,  
hezitzaileentzat ona da  
eta HIK HASIk behar du.

Harpidetu eta  
**HIK HASI** egitasmoa  
bermatu



**hik hasi**  
zure parte-hartzea  
ezinbestekoa du,  
harpide zaitez!  
50 euro urtean

Prezio horren barruan  
10 aldizkari, ale monografikoak  
eta Euskal Herriko baliabide  
pedagogikoen gida.  
Horrez gain, prezio bereziak  
Udako Topaketetan eta  
argitaratzen ditugun  
gainontzeko materialetan

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**hik hasi** Euskal heziketarako aldizkaria  
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua  
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA  
Tel: 943/37 14 08 Faxa: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK  
(BEZ barne) 50 euro

# editoriala

## apirila

### *Noren lana da haurren heziketa?*



**Hemendik aurrera,  
hik hasirekin batera  
Hazi Hezik osatuko du  
Euskal Hezkuntzarako  
egitasmoa: lehena, eskola  
esparruan, eta, etxearanean,  
bigarrena.**

Afrikar jakituriaren arabera, tribu osoarena. Hala gorde dute, behintzat, belaunaldiz belaunaldi, hain kontsigna garrantzitsua, gure egunetarin iritsi den esaera zaharrean: "Haur baten heziketa tribu osoaren lana da".

Eta nola erantzungo ote genioke gaur-gaurkoz guretik galdera horri? "Gurasoena eta eskolarena", izango liriteke, seguruenik, bilduko genituzkeen erantzun gehienentsuak.

Haatik, gurean ere, ez dirudi hain urrunekoak direnik haurren heziketa denen zeregina ziren garaiak. Gure herriak txikiagoak zirenean, baserriak eta etxeak jendearen bizitokiak zirenean batez ere -eta ez lotokiak-, kaleak haurren neurrikoak zirenean, bizitza gizatiarragoa zenean, akaso, denok zuten ardura eta eragiten zuten haurren heziketan.

Bizitzeko estiloak eta bizitzeko abiadak, zeregin hori batez ere eskolaren eta betebeharen zuzenaren ondorioz

gurasoen esku utziz joan dira. Hala ere, jendarte osatzen dugun bakoitzak, badugu zer irakatsi eta zeregin ordezkazina haur horren heziketan: izan aitona-amona, zaintzailea, osaba-izeba, bizi-laguna, Udal arduraduna edo aisialdikoak. Handiagoa edo txikiagoa, zuzenagoa edo zeharkagokoa, bakoitzak dugu gurea.

Orain arte, etxe honetan, 17 urtez zerbaitez aritu bagara eta zerbaitean, haurren heziketan ekarpenak egiten eta heziketa hori nola hobetu izan da. Munduari begiratu diogu, baina euskal betaurrekoak jantzita. Horregatik, urte horietan egin ditugun ekarpen gehienak Euskal Herrian sortutakoak dira, euskal haurra baikenuen jopuntuan. Gure lan esparrua, baina, eskola izan da.

Denbora horretan guztian, ordea, gero eta ozenago agertu zaigu gure lanean eskolak erantzukizun handia eta aberatsa duela haurren heziketan bai-

na ezinbestekoa duela etxeak, tribu osoak, bere lana egitea. Horrela, denon elkarlanarekin, eta ez bestela, lortuko baita heziketa hori ahalik eta osatuena eta osasuntsuena izatea.

Eta halako batean, ingurutik mezu onenak ez badatozkigu ere, ausartu egin gara urratsa ematera. *Hazi Hezi* izena du gure ekarpenak, etxean hazten laguntzeko aldizkaria. Euskal Herrian sortua, pentsatua eta egin Euskal Herriko haurrak hezten laguntzeko. Etxea, tribu kontzeptu horretan kokatua. Bakoitzak, tribuan betetzen dugun lekuaren arabera, zer esan handia baitugu haurren heziketan. Haurrek, tribu osoko partaideen begirada behar baitute, bakoitzak duen zereginen eta originalitatean. Martxan gara, tribuko kide bakoitzarengana heldu nahiko genuke, zerk kezkatzen duen eta zer duen esateko entzun nahi dugu, ziur baikara denon artean egokiago heziko ditugula gure haurrak.

# kronika

*Hainbat berrikuntza iragarri ditu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeentzat. Horien artean, Lanbide Heziketan, adibidez, Lanbide Heziketako ikastaro oso bat egiteko zailtasunak dituztenen ikasleei, ikasketak moduluetan egitea eskainiko zaie.*

*Eskolara joan ezin dutenek, gainera, Internet bidez ikasi ahal izango dute.*

*Era berean, prestakuntza hasten ari diren edo kualifikazio maila txikia duten gazteei laguntzeko hainbat programa jarriko dira indarrean: programa horien helburua, lana eta trebakuntza uztartzea izango da.*

*Programa horiek, etorkizuneko aukerak dituzten sektoreetan eskainiko zaizkie ikasleei.*

*Bestalde, 6.050 lagun dira, EAEko hezkuntzako lan eskaintza publikora aurkeztu direnak.*



## BHko hainbat ikasgai atzerriko hizkuntzan

Ikasturte honetan, Nafarroako 2.000 ikasle inguruk zenbait ikasgai frantsesez edo ingelesez ikasten ari dira 19 institutuetan. Lau ikasletik hiruk ingeleza aukeratu dute eta batek frantsesa.

Hainbat ikasgai bi hizkuntza horietako batean ematean datza egitasmoak, eta aurtan 68 irakasle izan dira bertan aritu direnak. Atzerriko hizkuntzan eman diren ikasgaien hautaketa, ikastetxe bakoitzak dituen baliabideen arabera egin da. Gaur egun, ordea, gutxi dira hizkuntza horiek menderatzen dituzten irakasleak, eta hori dela eta, ikastetxe bakoitzak egin duen eskaintza ikasgai batera edo bitara murriztu da. Ikasleen kasuan, ikasgai bat ingelesez egin ahal izateko maila zehazteko proba bat pasa behar dute, eta irakasleen kasuan, B2 maila izatea ontzat ematen zaie baldin eta C1 lortzeko programa

batean izena emana badute. Gogoratu, C1 maila EGAn parekoa dela.

## Haur-eskolek araua bete behar

Haur-eskola pribatuek araua bete beharko dute 0-3 zikloa eskaintzen jarraitu nahi badute, eta abuztu arteko epea izango dute eskakizunak bete eta baimena eskatzeko. 2007an haur-eskola guztientzat onartu zen dekretuak betebeharrak fisikoak eta langileei dagokionak ezarri zituen. Nafarroan, 30 inguru haur-eskola pribatu daude, eta bere garaian kritikatu zuten dekretua oso estua eta betetzeko zaila zelako.

## Seme-alabak dituzten irakasleek

Bere ardurapean 4 urte baino gutxiagoko seme-alabak eduki eta etxetik 60 kilometrotara lan egiten duten irakasleek ikastetxe aldaketa eskatu ahal izango dute.

Aspaldiko eskaria zen arren, hainbat sindikatuk erabakia kritikatu dute, haien ustez "motz geratu delako". Izan ere, haurren adina gutxiegi da, eta etxetik ikastetxera ezarri den distantzia ez da nahikoa, "errepide okerragoak diren kasuan, 50 kilometrotako distantzia eskatzen baitzen". Hala ere, eta departamentuak "anbizio gutxirekin jokatuko badu ere", lana eta familia bateratze bidean "urratsa aurrerapauso" gisa ikusi dute sindikatu berek.

**“Pedagogoei, sarritan, ez zaie bururatzen hezkuntzaren zenbait alderdi, zientzia sozialetik at, ulertezinak bilakatzen direla, adibidez: hezkuntza, menderatzearen eta kontrol sozialaren artean dagoen erlazioez jabetzea zaila egiten zaie” .**

**Mikel Urkola**



## **Euskaraz ikasten dutenen kopurua gora**

Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan euskaraz ikasten duten neska-mutilen kopuruak goraka egiten jarraituko du heldu den ikasturtean.

Eredu publikoak ez ezik, pribatu katolikoak eta Seaskaren murgiltze ereduak ere gorakada nabarmena izan dute. Ondorioz, gaur egun eskolen erdiek bi eleko hezkuntza eskaintzen dute eta sistema horretan ari dira ikasten ikasleen herenak.

Hain zuzen ere, neguko izen ematearen arabera, heldu den ikasturtean 5.056 ikasle izango dira bi eleko eskola publikoan, orain 4.781 direlarik; eskola pribatu katolikoan, berriaz, 2.100 ikasle izango dira, orain baino ehun gehiago; eta Seaskak, Lehen Mailan 2.100 ikasle baino gehiago bilduko ditu, orain baino 150 ikasle gehiago.

Ikasturte berrian, Atharratzen (Zu-

beroa) eta Donapaleun (Nafarroa Beherea) ezarriko dute bi eleko eskaintza Bigarren Mailan. Era berean, Baionako Paul Vert lizeoan bi eleko eskaintza egingo dute Lanbide Heziketan. Lehen Mailari dagokionez, eskaintza berriak izango dira Lapurdiko Milafrangan eta Angelun.

Datu itxaropentsu horien aurrean, ordea, Frantziako Hezkuntza Ministerioak ez dio baliorik ematen euskaraz ikasteari, eta aurten ere Baxoa frantsesez egin behar izateko aukera handiak dituzte Seaskako ikasleek. Hori dela eta, azken hogeitertan Seaskan hazitako ikasleek Baxoa euskaraz egiteko eskubidearen aldarriarekin bat egin dute. Aurten, hain zuzen, 20 urte betetzen baitira Seaskako ikasleek Baxoa lehen aldiz euskaraz egin zutenetik.

### **Ahalmen urrikoak laguntzarik gabe**

Integrazio Batzordearen lanari esker, Seaskak ahalmen urriko 38 haur eskolatuko dira 16 ikastoletan. Horietako 11 haurrek pedagogia egokitzapena behar ditu, eta 27k laguntzaileak behar dituzte. Alta, Frantziako Hezkuntza Ministerioak 21 laguntzaile baino ez ditu eman eta Integrazio Batzordeak arduratu beharko du sei haurri laguntza jar-tzeaz. Horrez gain, hamar hezitzailearen soldatak ere Integrazio Batzordearen gain geldituko dira. Eskolatzea bermatzeko kanpaina bat ipini dute abian.

Ikasleek kezka agertu dute hezkuntzaren egoera larria dela-eta. IAK, Ikasle Abertzaleak, gogor kritikatu zituen Espainiako gobernuak hezkuntza arloan hartu dituen neurriak, baita

Nafar gobernuaren exekutiboaren jokabidea. Horri guztiari neurriko erantzuna emate aldera, euskal ikasleria martxoan zehar “matxinatzera” deitu zuten: martxoaren 29ko greba orokorrarekin bat eginez eta martxoaren 31n Euskal Eskola Nazionalaren aldeko eguna ospatuz.

Bestalde, Hezkuntza Herriarentzat mugimenduak deituta, beste hezkuntza eredu bat aldarrikatu zuten Gasteizen egindako agerraldian.

Agerraldia, azken asteetan egindako gogoetaren ondotik dator, eta ondorioztatu dute ikastetxe bakoitzak bere proiektu eta egitasmo propioak izan behar dituela.

Era berean, Hezkuntza Herriarentzat mugimenduko kideek adierazi zuten “proiektu horiek zigorrik edo debekurik gabe aurrera eramateko gutxieneko baldintzak lortu nahi ditugu”.

Azkenik, mugimendu horretako gazteek egindako agerraldian, martxoaren 23ko mobilizazioetara deitu zuten.

# GAIA

## Hazi Hezi

*Etxekoei zuzenduriko aldizkari  
hezitzailea kalean izango da aurki*

18



AURKIBIDEA



24







# Erditzear gara

**hik hasi euskal heziketa-rako egitasmoa erditzear da. Haurdunaldia bederatzi hila-bete baino gehiagokoa izan da, baina, udaberrian, aldizkari honek haurride bat izango du: *Hazi Hezi* aldizkaria.**

***hik hasi* aldizkariaren osagarri izango da, baina etxeko komunitate osoari zuzenduko zaio *Hazi Hezi*, gurasoengandik hasi eta aitona-amonenganaino, haur eta helduagoen heziketa integral, aske, kritiko eta maitekorra nahi duten pertsona guzti-entzat.**

Nola ikasten du haurrak pertsona izaten? Non? Zeinekin? Hautzarroan altxatzen dira pertsonak oinarri izango dituen zutabeak. Nola eraikitzen dira zutabe horiek? Non jasotzen ditu haurrak balioak, ohiturak...? Nola lantzen du autoestimua? Nola ikasten du nor izaten? Elkarlanean aritzen? Mundu solidarioago bat bilatzen? Nola hezten da haurra? Non? Norekin?

Eskola da, zalantzarik gabe, haurrak –persona guztiok– heziketa jasotzeko duen lekuetako bat. Baina haurrak, eskolan, ordu batzuk pasatzen ditu egunean, eta gainerakoa etxean, kalean edo beste nonbait igarotzen ditu. Eta etxean ez al du, bada, ikasten haurrak? Eta parkean? Kalean?

Zer egin, haurrak autoestimua sendotu dezan? Ohitura onak har ditzan? Pertsona arduratsua izan dadin? Nola jokatu, eskolan jo egin dutela badio gure alabak? Nola, seme-alabek gauetan ateratzen hasi nahi dutenean? Nori galde diezaiokete gurasoek? Ni al naiz bakarrik sentitzen den ama bakarra? Nori galde diezaiokete kontsulta arratsaldeak 6

urteko bilobarekin pasatzen dituen amonak? Edo lehen aldiz gauean iloba zaindu behar duen osabak? Nola landu gurasoen eta irakasleen arteko harremanak? Gauzak ondo egiten ari al gara? Eta...?

Burutazio horiek guztiak aspalditik dabilta hik hasi egitasmoaren erredakzio-mahaietan bueltaka. Duela 17 urte, haurraren heziketan lagun zezakeen tresna bat sortu zuen irakasle talde batek eskolari begira, *bik hasi* aldizkari hauxe bera. Joxe Mari Auzmendi egitasmoaren koordinatzaileak gogora ekarri duenez, “irakasleentzako materiala sortzeko premia handia zegoen orduan; gaztelaniaz eta frantsesez bai, bazituzten tresnak, baina euskaraz informatzeko, eztabaidatzeko eta hausnartzeko gun bat falta zen”. Euskal heziketarako aldizkaria sortu ondoren, hik hasi egitasmoa irakasleentzako formazioa eta prestakuntza eskaintzen hasi zen, topaketak eta jardunaldiak antolatuz, lehenengo, eta gogoetarako monografikoak edota ikasteko nahiz jolaserako materialak sortuz ondoren. “Baina, irakasleen premia hori asetzen



# G

# Hazi Hezi aldizkaria

## Eskola eta familia: bi sistema, helburu bat

hastean, agerian gelditu ziren etxeko heziketaren premiak: etxeko heziketak eskolakoarekin batera joan behar zuela, biek norabide berean joan behar zutela... Horretarako, etxerako beste tresna bat sortu behar zela ikusi genuen: beste aldizkari bat”.

Eskola eta familia, azken batean, helburu bera duten bi sistema dira, norabide berean joan behar dutenak. Haurraren garapena dute biek helburu: haurra eta gaztea ongi sentitzea, bai beren buruarekin eta bai gizartean, eta ongi kokatzea. Joxe Amiama guraso eta EHUko irakasle denak halaxe dio: “Eskolaren eta familiaren helburua haurraren edo gaztearen garapen integrala da, hau da, garapen fisikoa, kognitiboa, emozionala, soziala... Eta hori denok nahi dugu; eskolak nahi du, eta familiak ere nahi du. Beraz, helburu bera dugu: haurra zorionsu izatea”.

Hik hasi egitasmoak, bada, guraso-elkarteei luzatu zien euren kezka, etxerako aldizkari baten beharra, baina urteak joan dira, eta, premia ase gabe gelditu denez, azken bi urteotan erredakzio honek serio eutsi dio proiektuari. “Krisiak –ez ekonomikoak soilik, baita balioen krisiak ere– are nabarmenago egiten du hutsune hori”, Auzmendik dioenez. “Aldaketa handiak izan ditugu denbora gutxian, eredu ekonomikoak, teknologia berriek eta, besteak beste, etorkinen mugimenduak aldaketa handiak ekarri dizkiete gizartea eta familia ulertzeko moduari, harremanei, irakasteko erari... Eredu berriak eskatzen ditu horrek, eta jende



sortzailea eta aldaketaren aurrean irizpideak, iritziz propioak, izango dituenak, kontzientziaren arabera jokatu duena; eta hori etxetik hasten da”.

### Zenbat eta informazio gehiago, orduan eta nahasiago

Haurraren garapenaz eta heziketaz gero eta gehiago pentsatzen dute gurasoek, Amiamaren iritziz. Gero eta galdera gehiago dituzte haurraren heziketatik. Izan ere, familien balioak –eta eskolak bultzatzen dituenak– asko aldatu dira azken hamarkadetan. “Historikoki, une batean, planteamendu autoritarioak ziren garrantzitsuenak. Boterea gurasoek zeukaten, batez ere gizonak. Erreferente batzuk argi zeuden. Gero, gauzak aldatu egin ziren, eta beste muturrera joan ginen. Nahiko permisibo

bihurtu ginen orokorrean, eta balioak aldatu egin ziren: haurra bihurtu zen ardatz. Gaur egun, planteamenduak aldatu egin dira, eta haurrak arduratsuak izatea nahi dugu”. Amiamaren arabera, gaur egun ez du balio haurrak zintzoak izateak, arduratsuak izateak balio du. “Eta aldaketa bat dago hor: arduratsua izateko, ez da soilik errespetua gorde behar, eta, gainera, aldebikoa izan behar du errespetuak, gorantzkoa eta beharantzkoa. Arduratsua izateko, ez da aitak edo amak esaten duena bete behar, ez dute gurasoek agintzen eta seme-alabek betetzen; ez, eskemak aldatu egin dira, eta norberak jabetu behar du egiten duenak ondorio batzuk dituela”.

Jendarteak –eta baita eskolak eta familiek ere– pertsona autonomoa, ardu-



ratsua, ekintzailea bultzatzen du, erabakiak hartzeko gaitasuna duena, estresa eta antsietatea kontrolatzeko gai dena. ... Balio autoritario nahiz permisibo haietatik abiatuta gertatu den aldaketa horretan, askotan, senari jarraitzen diote gurasoek, Amiamaren eta beste zenbaiten ustez, guraso-eskolak interesgarriak dira hausnarketak egiteko. Aldizkari berriak ere eredu berri horiek zabaltzen lagundu nahi du. Galderak eta erantzunak planteatu nahi ditu, haurraren garapenean laguntzeko helburua hartuta.

Teorietatik harago, alabaina, ereduak eta esperientziak aurkeztuko ditu aldizkariak; familien eta adituen esperientzietatik proposatuko ditu estrategiak. Amiamak dioenez, familiak, oro har, gauzak ondo egiten saiatzen dira, eta, askotan, haien esperientziak besteen eredu izan daitezke. Hori erakutsi nahi du *Hazi Hezi*ak.

Abiatu ere, esperientzietatik abiatu da hik hasi, etxeko komunitateari zuzendutako aldizkari hori diseinatzeako orduan. Irakasleek eman dute lehen argibidea, guraso asko –guraso izan berriak, nagusiki– euren seme-alaben heziketari dagokionez “galduta” sentitzen direla esanez. “Ondo ari al gara?, horixe da guraso askoren kezka”, zehaztu du hik hasiko koordinatzaileak, eta bat dator Amiamak balioen gainean dioenarekin: “Gizarte-eredu berri honetan, ez digute balio lehengo balioek, jokatzeko ere eta mezuek, eta beste era bateko jokamoldeak eta ereduak nahi ditugu; baina ez dugu argi zer-nolako ereduak jarraitu nahi ditugun”.

Interneten, liburuetan eta kalean inoiz baino informazio gehiago dagoen honetan, Auzmendik premiazko ikusten du iturri fidagarri eta kalitatezkoak zein diren identifikatzen

laguntzea: “Oinarritzkoak diren jarraibide batzuk azaldu behar dira, hankak ondo finkatzen laguntzeko, norberari segurtasuna emateko eta gauzak ondo egiten ari garela ikusten laguntzeko”.

Informazio eta teoria idealak euren eguneroko praktikara ekarri ezinda dabilta guraso eta hezitzaile ugari ere. Horregatik, gurasoek zer-nolako premiak, zalantzak edo galderak dituzten jakiteko, haiekin bildu da hik hasi egitasmoa, eta entzun egin die. Eta aitona-amonei ere entzun die, gero eta aitona-amona gehiagok ordu ugari pasatzen baitituzte bilobekin; ikastetxetik jasotzen dituzte, eta irakasleekin harreman zuzena dute askotan. Profesionalengana ere joan da erredakzio taldea, familiaren eta ikastetxearen arteko harremanetan aditu direnengana: “Ongi ari dira familiak, eta jakin egin behar dute hori”, diote. Auzmendik nabarmendu du hazkuntzako eta hezkuntzako profesionalak oso harrera ona egin diotela aldizkari berriaren proiektuari: “Familiari zuzendutako euskarazko aldizkari baten premia ikusten dute pediatrek, psikologoek, pedagogoek, emaginek, hezitzaileek eta abarrek, familiek gertuko erreferentzia bat izan dezaten, haurren behar emozionalak asetzeko gertuko ereduak aurki ditzaten”. Horrela, bada, *Hazi Hezi* abiatu aurretik, mahai-inguru, parke, ikasgela, kontsulta eta profesionalen bulego ugaritaz pasatu dira erredaktoreak, aldizkari berriaren oinarriak finkatzeko. Gurasoek, gazteek, aitona-amonek eta etxeko komunitate osoak gaur egun dituzten kezkei eta benetako zalantzei erantzun ahalizateko.

Haurrei eta nerabeei ere entzungo die aldizkariak, nola ez. Haiek ere badutelako zeresanik. Gehienetan, berriak ematen dituzte beren beharrei

buruzko argibide gehien, eta beraiei entzunez eta begiratzuz ikasi nahi du *Hazi Hezi*ak. Era berean, aldizkari horrek argi du helduek asko ikasten dutela txikienei adituz eta begiratzuz, umeen eta nerabeen beharrei arreta jarritz helduak ere hezi egiten direla.

### **Guraso.com eta Irrien Lagunakekin elkarlanean**

Euskarazko hedabideen sarea handitzera dator aldizkari berria, eta, horregatik, lehendik daudenekin elkarlanean arituko gara, denon artean komunitatea sendotzeko.

Interneten bere txokoa izango du aldizkari berriak, hik hasiren gaur egungo webgunea partekatuko baitu ([www.bikbasi.com](http://www.bikbasi.com)). Aldizkari berriaren edukiari buruzko informazioa eskuratzeko gain, iradokizunak egiteko aukera emango da bertan, eta baita kontsultak bideratzeko edota harpidetza egiteko ere. Hala ere, gurasoei interesa dakizkiekeen gaiak Interneten kontsultatzeko erreferentzia [www.guraso.com](http://www.guraso.com) helbidea izango da *Hazi Hezi*rentzat ere. Goiena Komunikazio Zerbitzuek eta Txatxilipurdi elkarteak sortutako ataria da, “amatasuna eta aitasuna egungo gure gizarte berdintasunezkoago honetara ekartzeko saioa”, eurek diotenez, Internetera bideratuta.

Haurrei euri zuzendurik, bestalde, *Hazi Hezi* Irrien Lagunak webgunea izango du erreferentzia, [www.irrienlagunak.com](http://www.irrienlagunak.com). Irrien Lagunak Kluba Euskal Editoreak, Elkarlaneanek eta Katxiporreta pailazo taldeak sustatutako kluba da, Euskal Herriko haurrak, gurasoak, hezitzaileak eta hainbat elkarte bildu nahi dituen, haurrak elkarrekin era dibertigarrian eta euskaraz hezteko helburua duena.

# Hazi Hezi aldizkaria

## Aldizkari berriaren oinarriak

Oinarrian, *bikhasiren* filosofia bera izango du aldizkari berriak, beste era bateko estrategiak eta planteamen-  
duak izan daitezkeen arren, eskolarako proposatzen diren helburuak etxerako proposatzen baitira, bi inguruneak norabide berean joan daitezzen. Helburua, haurrek –pertsonek– beren nortasuna gara dezaten tresnak eskaintzea izango da, pertsona autonomo, solidario eta kritikoak sortzen laguntzea, haien behar emozional, fisiko eta psikologikoak asetzeko.

Pertsonaren baliabideetan sinesten duen heziketa bultzatuko du *Hazi Hezi*k, baliabide horiek garatzen laguntzeko tresna izan nahi baitu aldizkari berriak, haurraren autoestimuari, askatasunari eta autokonfiantzari garrantzi berezia emanez.

Haurrez, pertsonaz eta familiez ari garenean, alabaina, atalik atal eta zeharka, errespetuz eta begirunez jokatu-  
ko du haur-, pertsona- eta familia-eredu askotarikoekin. Eta ikuspegi aldetik, parekidetasuna sustatuko du. Era berean, aldizkaria euskalduna izango da goitik behera, eta Euskal Herrian pentsatua. Horrek ez du esan nahi munduan egiten diren praktika eredu-  
garriak kontuan izango ez ditugunik, baizik eta hemendik begiratuko zaiela eredu horiei, Euskal Herriko ikuspegi-  
tik eta kulturatik, eta hemengo profesionalen galbahetik pasatuko direla.

### Atalez atal, haurraren behar guztiei erantzunez

Haurraren garapen kognitibo, psikologiko, emozional eta fisikoari buruzko teoriak azaltzetik harago, espe-

rientzia errealak izango dira *Hazi Hezi* hiruhilabetekariaren bizkarrezurra, familien esperientziak, aholkularienak, irakasleenak, adituenak... Eta bizipen horietatik ateratako estrategiak, erantzunak eta ereduak aurkeztuko ditu.

Batetik, aholkulari talde zabal batek ekarriko ditu orriotara esperientziak. Psikologoek, pedagogoek, psikomotrizistek, pediatrek, sexologoek, ginekologoek, homeopatek, hezitzaileek eta osteopatek osatuko dute aholkulari talde hori. Aldizkaria eta berorren atalak diseinatzen lagundu duen talde profesionalak, hain zuzen ere. Eta bi funtzio izango dituzte aholkulari horiek: batetik, nor bere espezialitatean, eguneroko lanean ikusten dituzten eta bizi dituzten gaiak ekarriko dituzte erredakzio-mahaira; haurrak, gurasoak edota aitona-amonak kezkatzen dituzten eguneroko gaiak zein diren identifikatu ondoren, aldizkarira ekarriko dituzte. Era berean, bakoitzak bere alorrean, ikerketaren edo hausnarketaren esparruetan aurkitzen dituen ekarpen interesgarriak egingo ditu. Horrez gain, espezialista-sare horrek irakurleen kezka aseko ditu, kontsultetarako tarte zabala izango baitu aldizkariak.

Bestetik, kaleko jendeak –amek, aitak, seme-alabek, aitona-amonak, profesionalak, izeba-osabek...– izandako esperientziak ekarriko ditu. Horregatik, edoskitze taldeetan nahiz gurasoekin, gatzetxoekin edota aitona-amonekin hizketan aritzeko txokoak sortuko ditu egitasmoak.

Eta, nola ez, eskolarekiko bideak zabalik izango ditu aldizkariak. Sortze-

tik beretik ikastetxe guztietara zuzendutako Hik Hasi aldizkariaren osagarri izateko bokazioz sortua baita Hazi Hezi. Horregatik, irakasleen eta gurasoen arteko harremanak –eskolen eta familien artekoak– landuko dira, enkontruguneak sortzeko helburuz.

Haurraren heziketa etxetik hasten dela esan dugu lehen, baina areago, haurdunaldiak eta erditzeak berak haurraren nortasunean eragina dutela jakitun izanik, lekua egingo zaie aldizkarian etapa horiei. Hortik aurrera, haurraren garapen ebolutiboan jarriko da arreta, 0 urtetik 18 urtera bitarteko tartean dauden haur eta nerabeek –eta horien guraso nahiz hezitzaileek– aldizkari bakoitzean izango dute beren intereseko gairen bat irakurtzeko, hala osasunari lotutako gairen bat, nola psikologiakoa, psikomotrizitatekoa, sexualitateari lotutakoa, eta abar.

Sormen aldetik haurrak dituen gaitasun eta beharrei ere erantzun nahi die berripaper horrek, jarreraren, espazioen edota materialen bidez sormena garatzen laguntzeko baliabideak eskainiz. Kulturak, arteak, musikak edota ahozko literaturak nahiz literatura idatziak ere izango dute beren tarte. Betiere, aldizkaria euskalduna eta euskaltzalea izanik, arreta berezia eskainiko dio euskal kulturaren transmisioari.

### Krisi garaian, notizia guztiak ez dira txarrak

Aldizkari berri hori ideia izatetik paperezko produktu izateko hezurmitzen hasi zen ia une berean, *Nabarra* aldizkariaren itxieraren berria zabaldu zen, hamaika urtez kioskoetan egon



ondoren. Geroxeago, *dantza.com* webgunearen itxiera etorri zen; horren ondoren, *Esan Erran* irratiaarena... Gauza jakina da euskarazko hedabideak kinka larrian daudela, krisi ekonomiko orokorrari paperezko komunikabideen sektorearen krisia gehitzen zaiola, eta are okerrago utzi dituela lehenetik ere diruz eta baliabidez larri zebiltzan hedabideak.

Ez krisi ekonomiko orokorrek, ez eta paperezko komunikabideen krisiak ere ez dute galarazi aldizkari berri horren sorrera. Ideia onenak krisialdian gauzatzen direla sinetsita, azken aldian albiste txar ugari dakartzen sektorean berri on bat zabaldu nahi du hik hasik. Euskal hiztunen komunitateak heziketari—eta, konkretuki, etxeko heziketari—buruz dituen kezkek ase ahal izateko helburuarekin dator aldizkaria, ehunetik gorakoa den euskarazko komunikabideen sarea aberasteko.

## Hazi Heziren harpidedun egiteko aukera

Udaberrian hasi, eta urtaro bakoitzeko *Hazi Hezi* aldizkariaren zenbaki berri bat argitaratuko dugu, hiruhilabetero bat, urtean lau zenbaki, beraz. Aldizkaria etxean jasoko dute harpidedun egiten direnek, baina horrez gain, liburu-denda eta kioskoetan ere salgai egongo da aldizkaria.

*bik basi* aldizkariaren harpidedunek baldintza bereziak izango dituzte *Hazi Hezi*-ren harpidetza egiteko orduan, izan ere, urte osoko harpidetza 20 euro beharrean, 15 eurokoa izango da kostua haientzat.

*bik basi*-ren harpidedunek bezala, *Hazi Hezi*-ren harpidedunek ere abantailak izango dituzte *bik basi* egitasmoak antolatzen dituen jardueretan, hala

nola, udako topaketetan, jardunaldietan, bidaia pedagogikoetan edota egitasmoak argitaratzen dituen materiale-tan ere.

Dagoeneko egin liteke hiruhilabete-kariaren harpidetza-eskaera, *bikbasi@bikbasi.com* helbide elektronikoan, 943 37 14 08 telefono zenbakian eta ondoko helbide honetara zuzenduz: Errekalde hiribidea, 59-1. solairua. 20018 Donostia.

Etxekoi zuzenduriko aldizkariaren lehenengo zenbakia ezagutu ahal izateko, berau doan eskuratu nahi dutenek aurreko helbide horietan egin behar dute *Hazi Hezi*-ren lehen zenbakia-  
ren eskaera, hilabete honen barruan, aldizkaria argitaratu aurretik.

**HAZI HEZI**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 4 aldizkari jasoz. Harpidetzak **20 euro** (BEZ barne) balio du.

***Hik Hasiren harpidedunentzat 15 euro balioko du.***

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

# Hazi Hezi aldizkaria

## Gurasoak, hezitzaileak, aitona-amonak... etxerako aldizkari baten premiaz



**Gloria URKOLA**

GURASO ETA MEITAI-MAITIE HAZIERA  
ELKARTEKO KIDEA

***“Garai bateko eredu autoritarioak jarraitu nahi ez dituzten gurasoentzako, bestelako ereduak ezagutzeko baliagarri izango da”***

Oso egoki ikusten dugu etxeko komunitateari zuzenduriko aldizkaria sortzea, alde batetik, euskarazko informazioa izateagaitik, dauden gauza gehienak ez daudelako euskaraz. Lagungarria izango da oso. Gure esperientziatik hitz eginda behintzat, informazio hau guztia ez dago "kalean", nahiko erraz aurkitzen da bila jarritz gero, gehien bat baliabide handi bat dugulako, Internet. Baina bestela ez dago informazioa oso eskura, ezta dena elkartua ere; gaiak, garaiak, taldeak, etab. Eta gure aldetik behintzat gure ikuspuntuarekin bat egiten duen estiloan doa.

Garai bateko eredu autoritarioak jarraitu nahi ez dituzten gurasoentzako, bestelako ereduak ezagutzeko baliagarri izango da; alde batetik, askok ez dakitelako badaudela beste mugimendu batzuk, geroz eta indar gehiago hartzen ari direnak. Eta bestetik, badagoelako jendea badakiena mugimendua egon

badagoela baina ez dakielako non, eta askotan aurreiritziz beteak iristen zaizkigu eta ez diegu aukera bat ematen bestelako ereduari. Idatzizko medio batean izateak, beti ere, argiago irakurri eta hausnartzeko modua emango dio jende askori, autoritarismoa nahi ez duenak, baina zer nahi duen argi ez duen jende askori.



**Iban ARREGI**

GURASO ETA KAZETARIA

***“Guraso moduan ezinbesteko ikusten dut gure umeen heziketa kritikoaren gainean hausnartuko duen hedabide bat, euskarazkoa eta geurea”***

Bizi dugun egoera ekonomikoan ez da apustu makala Hazi Hezi, baina herri honek behar ditu horrelako apustuak, krisiak krisi. Euskaldunon komunitatearen muinean dago euskarazko komunikazioa, euskarazko hedabideak ezinbesteko dira hizkuntza normalizazioa eta eskal komunitatearen kohesioa lortzeko. Bide horretatik, euskarazko hedabideen eskaintza normalizatzeko beste pauso bat da Hazi Hezi, hutsune bat betetzera datorrelako, eta guztion laguntza behar du, erakundeetatik hasi eta herritarrengaino.

Izan ere, guraso moduan ezinbesteko ikusten dut gure umeen heziketa kritikoaren gainean hausnartuko duen hedabide bat, euskarazkoa eta geurea, gure heziketa-baloreen eta ereduaren gainean sakonduko duena, hausnartuko duena. Merezi du herri honen geroan inbertitzea.



**Eider GOIKOETXEA**

HAURDUN DAGOEN INGENIARIA

***“Amaitezinak diren zalantzak argitzen laguntzeko beharrezko ikusten dut haurdunalditik hasi eta umearen heziketari buruzko euskarazko aldizkari bat”***

Lehenengo aldiz haurdun egonda, dena zalantzak dira, amaitezinak dira, bai ama eta bai bikotekidearen aldetik. Medikuareneko bixitan motz gelditzen zaizkizu, ordu laurden edo gutxiagoko txandak ematen dizkizute hilean behin. Askotan bertatik atera eta gero ohartzen zara galdetu nahi zenizkion 4 gauzetatik 2 galdetu gabe irten zarela. Eta inguruan, aurrez ama izan den bat baduzu, zalantza batzuk argituko dizkizu agian, berak bizitaketatik hitz egingo dizu, baina ez da ahaztu behar haurdunaldi bakoitza ez-



berdina dela, eta ume bakoitza ere desberdina dela, horregatik askotan, aditu baten ikuspuntuak edo argibideak zurrangoak izango dira. Erditzea prestatzeko klaseek asko laguntzen dute, baina, 30. astetik aurrera dira, eta ordura arteko zalantza guztiak airean pasatzen zaizkizu, eta gaztelaniaz ematen dituzte, "denok ulertu ditzagun". Beraz, haurdunalditik hasi eta umearen heziketari buruzko euskarazko aldizkari bat beharrezko jotzen dut, amaitezinak diren zalantza hauek argitzen laguntzeko, eta berri pozgarri bat izango litzateke.



**Alex MUELA**

GURASO ETA MONDRAGON UNIBERTSITATEKO  
PSIKOLOGIA IRAKASLEA

***“Haurrak eta nerabeak hezteko ikuspegi anitzak eta berritzaileak behar ditugu, baina hemengo identitatearekin josita egon behar dira”***

Euskal gizartean ez dago etxeko komunitateari (guraso, aitona-amonak, zaintzaileak eta abar) apropos zuzendutako horrelako aldizkariarik. Inguruan ditugunak, oro har, interesgarriak dira, baina askotan bertan esaten dena oso urrun sumatzen dugu, zergatik? Proposatzen dituzten ikuspegiak beste kultura batzuetatik datozeelako, eta geurearekin loturarik ez dutelako. Haurrak eta nerabeak hezteko ikuspegi anitzak eta berritzaileak behar ditugu, ados, baina hemengo identitatearekin josita egon behar dira. Beraz, ekimena oso interesgarria eta be-

harrezkoa ikusten dut. Premia handia sumatzen dut. Gurasook, gaur egun, seme-alaben hezkuntzari buruzko informazio iturri pila bat dugu, baina, maiz, informazio mordo honek nahasten gaitu. Zaintzaileok iturri fidagarrien premia behar dugu gure etxekoak hobeto zaintzeko eta, nola ez, zoriontsu eta beteak sentitzeko lan honetan. Hortaz, uste dut, honelako aldizkariak asko lagunduko ligukeela helburu hauek lortzen.

Nire ustez, haurrak eta nerabeak hezteko baliogarriak izan daitezkeen ikuspegiak, ideiak, proposamenak bildu beharko lituzke. Gaiak? Bada, adibidez, haurren eta nerabeen garapen kognitiboa, emozionala eta soziala; dietetika; familientzat aisialdi planak; kasuen azterketak eta abar. Hori bai, euskal gizartean dugun familia mota anitzari erreparatu eta fidagarriak diren iturriak erabiliz.



**Marije ZUMETA**

GURASO, AMONA ETA IRAKASLEA

***“Oso interesantea izango da aldizkari berria, bakoitza bere tokitik -aitona- amona gisa edo guraso edo irakasle- elkarrekin jarduteko, iritziak trukatzeko eta iniziatiba berriak planteatzeko”***

Amonek poz handia hartzen dugu biloba bat izango dugula jakiten dugunean, poz hori oso berezia da, etorkizunarekin, familiarekin, bizitzarekin lotuta baitoa. Poz horrek gero bustitzen ditu bilobarekiko erlazio guztiak. Erlazio horiek

ez dira guraso-seme/alaben tankerako harremanak. Oso dira desberdinak, askoz ere gozoagoak, beste era batekoak, gatazkarik gabekoak gehienetan. Lasaitasuna, patxada, baldintzarik gabeko maitasuna, esperientzia... izan daitezke amonek gure alde ditugun kartak. Hor kokatu behar dira gaurko kezka batzuk ere, amonek ez dakigula bilobei 'ez' esaten edo alditan seme-alabek gure bizi-modua eragozten dutela, biloben ardura gehiegi eskatzen digutelako etabar. Aitona-amonen papera, hala ere, gaur egun, aldatzen ari da, eta orain gauzak guretzat ere konplikatuagoak dira. Exijentzi gehiago sentitzen ditugu gure biloben zaintzan eta harremanetan. Zentzu horretan gero eta kezka gehiago ikusten dira zenbait gurasoren artean. Gainera, haurrak hezitzeko erak ez du ia zerikusirik gure garaikoarekin. Gure garaian umeak ikastolatik irten eta parkera jolastera eramaten ziren, orain eskolaz kanpoko ekintzetara doaz gehienetan. Teknologia berriekin ere gero eta azkarrago hasten dira harremanetan (ordenagailu, makinak...) eta hor gaude aitona-amonak transformazio horietara guztietara gu egokituz, gure laguntza eskaintzeko. Horregatik oso interesantea izango da aldizkari berria, bakoitza bere tokitik (aitona-amona gisa edo guraso edo irakasle) elkarrekin jarduteko, iritziak trukatzeko eta iniziatiba berriak planteatzeko. Erabat aberasgarria, eta aitona-amonentzat, gainera, bi aldiz interesgarria izan daiteke, ze lotzen gara aurrera doan bizitza proiektu batekin eta horrek erdi ahaztu egiten dizkigu (hein batean, noski) gure adineko hainbat egoera deseroso (osasuna dela, zahartzaroa...) Hortaz, ongi etorriko zaigu familiako aldizkaria jendearen pentsamendua nondik nora doan jakiteko, adituek esaten dutena, gure kezkak plazaratzeko, beste tokitan nola egiten duten jakiteko... eta dena euskaraz, orain arte izan ez dugun aukera ederra.

# maria j. lopez

## *ELKARRIZKETA*

Neurobiologoa.

“Garunaren garapenari dagokionez, Haur Hezkuntza askoz inportanteagoa da Unibertsitatea baino”





maria j.  
lopez

E

“ Otitis arazo bat zena eskola porrotaren eragile bihur liteke neurriak hartzen ez badira.

”

“ Garapenaren piramidearen oinarri-oinarrian daude behar emozionalak, hau da, ingurune emozional on bat beharrezkoa da garunak ikasiko badu.

”

Haurrak ikasi ahal izateko bere garuna ondo antolatua eduki behar duela dio neurobiologoak, ikusmen eta entzumen tresnak eta tresna motoreak eduki behar ditu garun horrek. Tresna horiek 0 eta 6 urte bitartean antolatzen dira. Horregatik, bere burua Haur Hezkuntzaren defendatzaile sutsu gisa aurkezten du Lopezek. Garunaren antolaketan haurraren inguruneak itzelezko eragina dauka neurobiologoaren arabera, jasotzen dituen estimuluaren arabera, elikadura eta atseden egokiarekin eta esperimendatzeko aukerekin soilik garatu baitaiteke egoki haurraren garuna eskolan eta bizitzan aurrera egin ahal izateko.

Haurrak oinarrizko tresna horiek garatzen ez baditu, herrenka hasiko ditu ikasketak, eta horiek izaten dira eskola-porrotera bideratuak dauden ikasleak. Alabaina, garunak zer tresna behar dituen badakigunez, haurrak izan ditzakeen arazoak aurreikus daitezke, eta behin antzeman ondoren, konponbidea izan ohi dute. Arazoak atzerapen mentaletik ez eta mukietan izan dezakete iturburua, edota otitisean; edota bentosa bidezko erditze batean; edota aspektu emozionalean...

Maria J. Lopez neurobiologoak, prezeski, eskola-porrota saihesten laguntzen die hurrei, Madrilgo Neocortex Antolaketa Neurologikoaren zentroan. Horrez gain, garuneko arazo larriagoak dituzten hurrekin ere egiten du lan, autistekin, hizkuntza arazoak dituztenekin, Down sindromea dutenekin... Neurobiologoa lbarrara etorri zen, Uzturpe ikastolak antolaturik hitzaldi bat eskaintzera.



**Pertsonak ikasi ahal izateko garuna ondo antolaturik eduki behar duela diozu. Zer da zehazki antolaketa neurologikoa?**

Gutako bakoitzak zirkuitu zerebral multzo bat daukagu, eta zirkuitu zerebral horien batuketak norberaren antolaketa neurologikoa osatzen dute. Hau da, gutako bakoitzak prozesatzeko modu bat dauka. Garuneko errepide handiak guztion garunetan berdinak dira: nerbio optikoa iguala daukagu zuk eta nik; baina, zure kortex bisualaren antolaketaren ondorioz, zuk era batera prozesatzen duzu, eta nik nire kortex bisualaren antolaketaren arabera prozesatzen dut. Agian zu ez zara oso pertsona bisuala, eta ni berriz bai; zu agian auditiboagoa zara. Guztiok ondokoarekiko diferentea den garuna daukagu, ez daude munduan bi pertsona berdin-berdinak direnak, nahiz eta bikiak izan, ez baitaude bi garun era berdin-berdinean antolatuak. Orduan, zer da antolaketa neurologikoa? Gure garuna antolatzeko prozesua da, eta antolaketa horri esker informazioa prozesatzeko gaitasuna duten gizakiak gara; prozesatu eta modu bakan eta errepikaezinean funtzionatzen du gure garunak.

**Garuna da ikasten duena; beraz, zer gertatu behar da haur baten garunean ikasketetarako prest egon dadin?**

Neurogarapenak prestatzen ditu haurrak ikasketarako. Horregatik aurreikus ditzakegu ikasketan zer arazo eduki ditzakeen haurrak, bai baitakigu zer gertatu behar den haur horren garunean ikasketetarako prest egon dadin. Haurrari ikasketa erraza eta atsegina gerta dakion garunak hainbat tresna eduki behar ditu: batetik, tresna bisua-

lak. Eskolako ikasketa gehienak bide bisualetik sartzen dira, eta horiek prozesatu ahal izateko, tresna bisualak eduki behar ditugu. Baita tresna auditiboak ere, lengoia informazioa transmititzeko mekanismo oso garrantzitsua baita. Postura kontrolatzen ere jakin behar du haurrak, eta horretarako tresna motoreak eduki behar ditu. Lateralitateak ere garrantzia handia du, izan ere giza garunaren zati bat arazoak konpontzen espezializatua dago, lengoaiaren esparruari dagokion atala, hain zuzen ere, eta atal hori ondo antolatua eduki behar du haurrak ikasteko. Horrez gain, ingurune emozional egokia behar du haurrak, emozionalki mehatxatua sentitzen baldin bada umea, bere garunak ezingo ditu gainontzeko tresna guztiak erabili.

### **Hasteko, beraz, ingurune emozionalak garrantzi handia du haurraren garuna egoki gara dadin.**

Ikasketa bizirauteko tresna da haurrarentzat. Baina haur askok ez daukate interesik ikasketetan, beren gurusoak bananduko ote diren ala ez jakin nahi baitute, adibidez. Nola kontzentratuko da, bada, haur hori matematiketan? Bere garuna banaketa hori gainditzeaz arduratua dago. Emozioak garunean daude, eta ez askok uste duten bezala bihotzean. Emozioen garapena, beraz, garunaren garapena da. Garunaren garapenean arazoak dituzten haurrak emozioen garapenean arazoak dauzkaten haurrak izan ohi dira. Garapen emozional egokia izan dezazun kalitatezko estimulu emozionalak izan behar dituzu, eta gainera, kopuru handitan. Ikusmenaren bidea estimulu bisualekin garatzen den bezalaxe, garun emozionala estimulu emozionalekin garatzen da.

Garapenaren piramidearen oinarri-oinarrian daude behar emozionalak, hau da, ingurune emozional on bat beharrezkoa da garunak ikasiko badu. Ondoren, ingurune fisiologiko on bat behar dugu (elikatu, lo egin, ordutegiak errespetatu, dieta sano eta orekatu bat behar dugu...), eta ondoren, zen-



tzumenen garapena legoke, ikusmenari, entzumenari eta garapen motoreari dagokion maila –horretaz arduratzen gara gu-. Garapen intelektual egoki bat gerta dadin, maila hori oso ondo antolatua egon behar da haurraren garunean. Eta azkenik, maila horren gainean doa garapen sozialari dagokiona.

### **Neurogarapenik handiena haurtzaroan gertatzen da, ezta?**

Haur baten garunaren %50a genetikoki zedarritua dago, eta beste %50a ingurunearen arabera garatuko da. Hau da, dena ez dago genetikoki idatzia, eta ez dago dena idazteke ere. Genetikarekin ezin dugu ezer egin, gaur-gaurkoz ez baitauek ingurunearen generik jartzerik gure seme-alabei; baina, inguruneari dagokion %50 horretan eragin dezakegu. Gure seme-alaben haziera asko aldatu da azken 30-40 urteetan. Ingurune ona daukagula uste dugu, baina nik zalantza ugari ditut horri buruz. Zer da ingurune on bat? Esate baterako, nola eragiten dio txertaketak oraindik hain ahul den gorputz bati? Gaur egungo bakunazio-sistema duela 40 urte zena baino askoz gogorragoa da, eta hori garunari eragiten dion ingurunea da. Elikadura ere ingurunea da. Edota garai batean amak egun osoan etxean egoten ziren, eta orain ez; garai batean 4 urterekin joaten ginen eskolara, eta orain, 4 hilabeterekin. Haurraren

hazieraren ingurunearekin zer gertatzen den aztertu behar dugu, hori guk kudeatu baitezakegu, genetika ez bezala. Eta hori oso albiste ona da, gauzak oso ondo egin baititzakegu haurraren garuna estimulatzeko; edo oso gaizki.

Haurra garuna muntatua duela jaiotzen da, ernaldian muntatzen baita bere garuna. Zelulei dagokienez, garapen zerebrala haurdunaldiko 9 hilabeteetan gertatzen da. Haurra jaiotzean bere garunak gerora izango denaren %23 pisatzen du, hau da, gure garuneko neuronen %100ek gure garunaren %23 pisatzen dute. 0 eta 6-8 urte bitartean haurraren garunak gerora izango denaren %80 pisatzen du, garunaren garapenik handiena argi eta garbi 0 eta 6 urte bitartean gertatzen da. Horregatik, ni Haur Hezkuntzaren defendatzaile sutsua naiz, hor gauzak ondo antolatu eta bideratzen badira, pertsona horrek bizian aurrera egin ahal izango baitu.

### **0-tik 6 urtera bitartean, beraz, garapen itzela dauka garunak.**

0 eta 6 urte bitarteko etapa da garairik emankorrena, garunaren garapenari dagokionez. Garunak plastizitate handiena 0 eta 6 urte bitartean dauka, gero haurtzaroan egonkortu egiten da, eta helduzaroan izango duen garuna garatzeko azken bultzada nerabezaroan iritsiko da, hormona sexualak garunean sartzen direnean gertatzen baita

“Oftalmologoak dio haurrak begiak sano dituela, baina hala eta guztiz ere haurrak ez du irakurtzen. Orduan guk esaten dugu haur hori alferra dela. Ez dugulako ulertzen garuna dela irakurtzen duena, eta ez begia

”

garunaren azken berrantolaketa. Nera-bezaroan izango dugu garun heldua, geure bizitza osoan edukiko dugun garun heldu hori. Garuraren pisu hazkunde hori osatzeko prozesuengatik gertatzen da, plastizitate neuronal gerta da din beharrezko oinarriak dira sinapsia eta mielinizazioa, eta ingurune estimuluen mende daude.

### **Garuna beraz, estimulatu dugunaren arabera garatuko da?**

Garuna %23tik %100ra ingurunearen arabera haziko da, hori ez baitator genetikoki idatzia. Ikerketa ugari egin dira Afrikan jaten ez duten haurrekin; edo estimulurik jasotzen ez duten umezurtegietan edota jasotzen dituztene-tan... Estimulu horien guztien eta elikaduraren eta nutrizioaren arabera izango da gure garuneko neuronon artean sortuko diren edo ez diren errepideak.

Neuronak ernaldian osatzen dira, eta jaiotzeko garaian ditugun neuronak izango dira bizitza guztian izango ditugunak, ez baitira gehiago sortzen. Neuronak dira gure bizitza osoan lagun ditugun zelula bakarrak, birsortzen ez direnak. Neuronen arteko errepide edo kable sarea, ordea, hori bai sortzen joango da jaiotzen garenetik aurrera. Gure garunean gero eta errepide gehiago eduki, orduan eta hobeto zirkulatu du informazioak; gero eta errepide gutxiago eduki, informazio okerrago zabaltzen da gure garunean. Eta errepide horiek egin egin behar dira, ez baita uzteko jaiotzen garenean.

### **Estimuluen arabera neuronen arteko errepideak sortuko ditugu, baina errepideak haurtzaroan irekitzeak betiko hor izango ditugula esan nahi du?**

Errepide horiek mielinizatu egin behar dira, mielinizaturik dauden errepideetan soilik pasatzen baita informazioa azkar eta ondo. Mielinizatzeko trafikoa egon behar da, ez bada go trafikorik ez da mielinizatuko, hau da, ez bada behar ez dira erabiliko. Fetu garaian, adibidez, kopeta hezurko globuluak ez dira mielinizatzen, ez baitira erabil-

tzen. Garai horretan atal motoreak mielinizatzen dira, haurtxoak hanka bat luzatzen duenean, edo besoa tenkatzen duenean, edo jira-buelta ematen duenean. Bizitzako lehen urtean zentzumenen sustraiak mielinizatzen dira, haurtxo ikusmen, entzumen eta ukimenaren aldetik konektatzen baita, eta oreka behar duenez atal horiek mielinizatuko ditu garunak. Haurtzaroan arre-tari loturiko atala mielinizatuko da, eta, azkenik, atal kortikala edo azalari dagokiona, eta 13-14 urterekin hasiko da pertsona burubidea edukitzen.

### **Garuneko errepide horiek ondo antolatuta baldin badaude, ikusmenak, entzumenak, ukimenak, usaimenak eta dastamenak informazioa bidaliko diote garunari, baina zer behar du garunak informazio hori prozesatu eta kanporatzeko?**

Garunak bederlatzi sarrera gune ditu, eta bat ateratzeko: proportzioa izeberg baten tamainakoa da. Informazio asko sartu behar da irteera eman ahal izateko. Eskola-sistemak informazioaren sarrera-irteera 1-1ekoa dela uste du. Hau da, informazio bat sartzen da, ondorioz, informazio bat atera behar harko litzateke. Batuketak egiten irakasten dizut, eta batuketan azterketa egiten dizut. Baina garunak ez du horrela funtzionatzen. Hau oso argi ikusten da bigarren edo hirugarren hizkuntza ikasten ari diren pertsona helduen kasuan: hamar urte daramatzagu ingeles ikasten, Londresera joan gara, malleta galdu zaigu eta ez gara “hello” beste ezer esateko gauza; hori da dakigun ingeles guztia? Ez, baina ez gara gauza dakigun horri guztiari irteera emateko. Hori gertatzen zaio haurri ere.

Garunean informazioa sartzeko bide batzuk daude, eta bide horiek, esan bezala, estimuluak behar dituzte. Bide horiek ikusmena, entzumena, ukimena, gustua eta usaimena dira. Garunak informazio hori prozesatu egingo du, beti ere bere garapenaren arabera prozesaketa egingo du, eta ondoren, informazio hori gorde egingo du. Gero, kaleratzeko bideetatik egotzi egingo du informazio hori. Kaleratzeko bidea

mugikortasuna, lengoia eta eskuaren funtzioa dira. Haur batek kaleratzeko bide horietan arazoak baldin baditu, oso erraza zaio helduari haurren arazo horiek antzematea.

### **Zeintzuk dira informazioa kaleratzeko bideetan haurrek izaten dituzten arazo nabarmen horiek?**

Informazioa kanporatzeko bideetan arazoak dituzten haurrak izan ohi dira ibiltzen ez diren haurrak (edo bere adinaren mailari dagokion neurrian ibiltzen ez direnak), hitz egiten ez dutenak (edo bere adinaren mailari dagokion neurrian hitz egiten ez dutenak), idazten ez dutenak (edo bere adinaren mailari dagokion neurrian idazten ez dutenak). Haurtzaroarekin harremanak dituen edozein helduk oso erraz antzematen ditu arazo horiek. Zailtasunak informazioa sartzeko bideetan arazoak dauden kasuetan gertatzen dira, haurra ez baldin badago guztiz itsu edo gor, heldu gutxi ohartzen dira haur horrek ikusmen edo entzumen arazoak dituela, edo arazo propiozeptiboak dituela.

### **Adibide bat jar zenezake?**

Haur asko logopedarenean aritzen dira lengoia-terapia egiten, eta berez ez daukate lengoia arazorik, daukate-na txikitana otitisa izan zutela da! Eta otitisa ez da lengoia arazoa, baizik eta entzumen arazoa da. Kontua da ez bada sartzen, ezin dela atera. Informazioa ez bada sartzen, ezin dela atera. Irteera ari gara lantzen, lengoia ari baikara lantzen, baina arazoa sarreran dago. Informazioaren joan-etorriko zirkuitu horretan arazoa non dagoen jakin behar dugu eremu horretan lan egin ahal izateko. Garunari informazioa sartu behar zaio gero atera ahal izateko. Askotan irteerak lantzen aritzen gara, benetan arazoa sarrerako bideetan dagoela pentsatu gabe.

### **Hezkuntza-sistemak, ordea, ez du garunera sartzen den informazioa neurtzen, ateratzen dena baizik.**

Hezkuntza-sistemak uste du inteli-

gentzia garunetik ateratzen den hori dela. Orduan, Stephen Hawking ez da intelijentea? Hawkingek ezin dio irteerarik eman berak daukan jakintza horri guztiari, baina garuna ondoen egituratua daukan pertsonatako bat da. Ez dauka irteerarik, baina bere garunari sartzen zaio informazioa eta prozesatu egiten du. Irakasleok kontuan izan beharko zenuteke haur batek informazioari irteera emateko arazoak dituenen irteerako bideetan, ala sarreraketan edo prozesaketan dituen arazoak.

### **Garunak bere tresnak ondo antolatua ez baldin baditu, zertan eragingo dio haur horri ikasketa prozesuan?**

Bere eskura tresnak dituen haurrak izango du arrakasta eskolan. Oro har, tresna gehien dituzten gizakiei joaten zaizkie gauzak ondoen. Bere eskura tresna gutxi dituen haurrari zail egingo zaio eskolan ondo joatea. Eta tresnak eskuratze hori 0 eta 6 urte bitartean egingo da, etapa horretan ez bada haurraren garuna ondo antolatzen, zaila izango da martxa jarraitzea. Sarri Unibertsitate mailako heziketari inportantzia handia ematen diogu, baina garunaren garapenari dagokionez, Haur Hezkuntza askoz inportanteagoa da Unibertsitatea baino. Haurtzaroan garapen zerebral egokia eduki duen pertsona Unibertsitate iritsiko da gero, baina garapen ona eduki ez duenari zail egingo zaio.

Haur asko garunaren garapenaren azken etapara prozesaketa bisualerako behar diren tresnak ondo egituratu gabe iristen dira; edo prozesaketa auditiborako behar diren tresnak edo prozesaketa motorerako behar diren tresnak ondo egituratu gabe. Lehen Hezkuntzan irakurtzeko arazoak izan dituen haur horrek, bigarren maila herrenka eramane duenak; hirugarrengoa idazketa-irakurketako ulermen arazoak izan dituenak... Batxilergora iristean amore ematen du, bere adinekoren mailan jartzea oso zail egiten baitzaio Haur Hezkuntzatik arrastaka dakarren motxila astun horren erruz! Eskola-porrota ez da 14-15 urterekin hasten normale-



an, eskola-porrota herrenka hasten den haurrek jasaten dute, berez aurreikus zitezkeen arazoak dituzten haurrek.

### **Zein dira haur batek ikasi ahal izateko bere garunean ondo antolatua izan behar dituen tresna bisualak?**

Lehenik eta behin, kontuan izan behar dugu ikustea eta ikusmena ez direla gauza bera. Gauza bat da begia sano egotea, eta beste bat garunak ondo prozesatzea begiek bidaltzen dioten informazio hori. Begiek ez dute irakurtzen. Arranoek, panterek, lehoiek, otsoek edota ugaztun guztiak guk baino hobeto ikusten dute, baina arranoek irakur dezakete? Ez. Nik irakur dezaket kortex bisuala dudalako, eta kortex bisuala ondo antolatua ez baldin badaukazu, ezin duzu irakurri. Oftalmologoak dio haurrak begiak sano dituela, baina hala eta guztiz ere haurrak ez du irakurtzen. Orduan guk esaten dugu haur hori alferra dela. Ez dugulako ulertzen garuna dela irakurtzen duena, eta ez begia. Noski, begia sano egotea oso albiste ona da, kataratak edukiko balitu ezingo bailuke irakurri. Baina horrez gain, garunak hainbat tresna garatu behar ditu irakurri dezan, haute-mate tresnak, adibidez: formak identifikatu behar ditu, zer den lauki bat, zer marra bat, zer lauki zuzen bat... ez badi-tu marra identifikatzen ezingo du ulertu T gurutzatzen diren bi marra direla; memoria bisuala eduki behar du, edota informazioa diskriminatzea;

**“ Hezkuntza sistemak uste du inteligentzia garunetik ateratzen den hori dela. Orduan, Stephen Hawking ez da inteligentea? Hawkingek ezin dio irteerarik eman berak daukan jakintza horri guztiari, baina garuna ondoen egituratua daukan pertsonatako bat da. ”**

adibidez, arbelekoa kopiatu behar duen haurrak jakin behar du bere begiek ikusten duten informaziotik zer den garrantzitsua eta zer ez: arbel ondoko landarea ez, zenbakiak bai, posterrak ez... Diskriminazio bisualarekin arazoak zituen haur bat ebaluatzen ari nintzen lehengo batean: orri batean zegoena beste batean kopiatu behar zuen minutu batean; irakurri zuen batekoa, hasi zen bestean kopiatzen, eta berriro irakurtzeko burua altxatu zuenean arkatzairen puntarekin topo egin zuen eta 45 segundo igaro zituen arkatzairen punta aztertzen, bere esparru bisualean sartu baitzen. Ume horrek ez zeukan diskriminazio bisualerako gaitasunik.

**Irakurtzeko arazoak dituen haur bati, gehiago irakurtzeko esaten diogu, eta gainera, ahots goran egiteko esaten diogu. Hori da konponbidea?**

Ez, hori ez da erremedioa. Batek ibiltzeko arazoak baldin baditu, soluzioa ez da gehiago ibiltzea, belauenean min hartzen badu ezin du gehiago ibili. Haur batek irakurtzeko arazoak baldin baditu, zergatik den jakin behar dugu. Gehiago irakurraraztea zailtasun eta frustrazio gehiago eragitea da. Haur bati ahots goran irakurraraztea, nire iritziz, inmorala da. Guztiz inmorala. Haurra irakurtzen ikasten ari denean bi gauza aldi berean egin ditzan agintzen diogu, ahots goran irakurtzea ez baita irakurtzea, hori hitz egitea da, lengoia da. Inork ez du ahots goran irakurtzen, haurrak bakarrik behartzen ditugu hori egitera, justu ikasten ari den garaian. Zer pentsatua eman behar liguke horrek.

**Gero eta lehenago irakurtzen hastea ez da hobe?**

Ez. Niez nago ados idazketa-irakurketa aurreratzearekin. Egin beharreako da ondo ziurtatu prozesu horretan hasi behar duen umeak garuna prestatua daukala irakurri eta idatzi ahal izateko. Ez dute hobeto irakurtzen lehenago hasten diren hurrek. Ondo irakurtzen duena irakurketarako antolaketa neurologiko egokia duen haurra izan-



go da, eta horrek bere denbora behar du. Normalean 6 urterekin haurrak ondo antolatua du garuna irakurketarako; batzuek 5 urterekin ere ondo antolatua dute, eta beste batzuek 7 urterekin. Zenbait hezkuntza eredutan 7 urtera arte itxaroten da hasteko, gelako haur guztiei itxaroten zaie irakurtzen hasteko. 6 urterekin hasten direnen kasuan, garbi izan behar dute normalean gelaren heren bat ez dela prest egongo irakurketarako. Eta 5 urterekin hasten direnen kasuan, gelaren heren batek soilik edukiko du garuna horretarako antolatua. Ondorioz, eskola-porrotaren arriskua asko handitzen du azken eredu horrek, haurrak 5 urterekin ezin iritsirik hasiko baitu ikasketa prozesua. Tresnak prestatzen utzi ez diogun haurrari ezin diogu ezer eskatu.

**Inguruneak, estimuluek eta aukerek garuna garatzen laguntzen dutela diozu. Zein litzateke ingurune desegoki batek sortu eta eskolan eragin dezakeen ikusmen arazo bat?**

Gero eta haur gehiago daude ikusmen konbergentziako arazoak dituztenak, ez baitute esperientzia motore hori bizi izan bere garaian. Zazpi bat hila-beterekin hasten da haurra okulomotrizitatea lantzen, lau hankatan ibiltzen hasten denean. Une berean bi begiak leku berera jartzen ikasten du haurrak lau hankatan ibiltzean. Baina, gaur egun haurrak ibiltzen al dira lau hankatan? Bada ez dakigu, zer haurtzaindegietan zer aukera daukate lau hankatan ibiltzeko amakatxoan etzanda baldin badaude? Eta etxean, parketxotik ez baditugu ateratzen? Okulomotrizitatea oso garrantzitsua da ikusmenaren ga-

rapenean, hau da gure ezker begiak eta eskuinak ikusten dituzten bi irudiak batean fusionatzeko gaitasuna. Haurren garunak bi irudiok koordinatzen ez baditu, ezin du irakurri, ez idatzi, ez baita gauza bi begiak puntu berean enfokatzeko eta aldi berean mugitzeko, horregatik begi batek irakaslea ikusten du eta besteak radiadorea, eta bere buruak eskaintzen dion irudian irakaslea radiadorea buruan duela ageri da, edo ama sabelean leihoa duela... eta hori zorarena da! Horregatik begi bat alfertu egiten du garunak. Ume horiek izan ohi dira letra tamaina jaitsei ezin dutenak, edo marraztu nahi ez dutenak zirkuluetatik ateratzen direlako, edo letra txikia irakurri ezin dutenak...

### **7 hilabeterekin lau hankatan ibili ez den haurrak irakurtzeko arazoak baldin baditu, hobe da 6 urterekin lau hankatan ibiltzen jartzea?**

Garuna entrenatu liteke. 7 hilabeterekin egin ez badu ez du esan nahi dena galdutzat jo behar dugunik, hobe dugu 5 edo 6 urterekin lau hankatan ibili, ezer egin gabe uztea baino.

### **Entzumenari dagokionez, zein izaten dira antolaketa neurologikoari loturiko arazo nagusiak?**

Hasteko, entzutea eta entzumena edukitzea ez direla gauza bera ulertu behar dugu. Belarria sano egon daiteke, baina horrek ez du esan nahi garunak prozesa dezakeenik belarritik sartu beharko lukeen informazioa. Entzumen kalitateak zerikusi handia du eskola-porrotean, hala diote ikerketek. Duela gutxi egindako ikerketa batek erakusten zuen zentro batean entzumen arazoak zituzten haurren %91k suspenditu egiten zutela irakasgairen bat. Okerren entzuten dutenak dira gehien suspenditzen dutenak.

### **Belarria sano baldin badu, nola antzeman haur horrek entzumen arazoak dituela?**

Eskolan erraz deskonektatzen diren haurrak izan ohi dira; hipo edo hipersensibleak soinuarekiko; esana behin eta berriro errepikatu behar iza-

ten zaie; gauzak gaizki ulertzen dituzte ahoz esaten zaizkienean; ez dute gogoratzen esan zaiena... eta ondorioz lengoaia arazoak, idazketa arazoak eta irakurketa arazoak dituzte, eta azkenean eskola-porrotetik gertu ibil litezke. Eta entzumen arazo horiek askotan muki eta otitis arazoetatik datoz! Ez dakizu ondo mukiek zer eragin duten entzumen bideen garapenean! 18 hilabeteko haur bat mundua entzuten ikasten ari da, eta otitisak eta mukiek belarriak estaltzen badizkiote ez du espero bezala ikasten. Otitis arazo bat zena porrotaren eragile bihurtu liteke neurriak hartzen ez badira.

### **Eta tresna motoreek edo mugikortasunak nola eragiten diote haurrari ikasketa prozesuan?**

Garapen fisikoa oso garrantzitsua da haurrengan, lehenik eta behin, aurrena garatzen dena delako. Haurrak tonu muskularra behar du, oreka, eta garapen fisikoak autonomia, antolaketak neurologikoa eta posturaren kontrola ematen dizkio. Mugikortasuna guztiz beharrezkoa da ikasteko, mugitzen dakienean haurrak arazoak konpontzen jakingo du.

Guk garapen motorea ikuspuntu ebolutibotik lantzen dugu. Haurrak arrastaka ibili behar du lurrean; gero lau hankatan ibili behar du; ondoren oinez, eta gero korrika. McClynnnek dio giza garunak eboluzioaren historia dararamala idatzia, hau da, giza garuna hiru garun direla: narrasti garuna; ugaztun garuna eta giza garuna. Narrasti garuna arrastaka ibiltzen da; ugaztun garuna, lau hankatan; eta giza garuna, oinez. Hiru garun ditugunez, hirurak ondo antolatuak eduki behar ditugu. Narrasti garuna oinarrizko biziraupenarekin lo-

tua dago, bihotzaren taupadaren gisako oinarrizko funtzioez arduratzen da. Ugaztun garuna zentzumenen prozesatzailea da, ikusmena, entzumena, arreta, koordinazio motorea, oreka eta emozioez arduratzen da. Eta giza garuna da irakurtzen duena, ulertzen duena, aditzen duena, hitz egiten duena, idazten duena... Baina gainera garun horrek funtziona dezan, azpiko garunen oinarriek ondo jarriak egon behar dute. Horregatik haurrek lau hankatan ibili behar dute, bestela garapen fase hori osatu gabe gelditzen da.

### **Eskolan lantzen diren garun atal gehienak ezkerreko hemisferioan daude kokatuak, baina gauza jakina da pertsona batzuek eskuin hemisferioa garatuago dutela.**

Gurutzatuak dauden bi garun erdi ditugu. Ezker eta eskuin hemisferioak. Ezker hemisferioan oso espezifikoak diren funtzioak daude, matematika, lengoaia, hizkuntza edota ulermenari loturikoak. Eskolari dagokion ia guztia ezker hemisferioari dagokio. Beste hemisferioan kokatzen dira gaitasun globalagoak, musikari, arteari, espaziorari... loturikoak. Eskolak ez ditu errespetatzen hemisferio baten edo bestearen arabera desberdin prozesatzen duten haurrak daudela, eta gero eta garrantzi gutxiago ematen zaie, gainera, plastika edota musika bezalako alorrei, informatika edota hizkuntzen mesedetan; eta informatika eta hizkuntza ezker hemisferioko alorrek dira. Irakasleak kontuan izan behar du ezker eta eskuin hemisferioaren arabera prozesatzen duten haurrak dituela gelan, eta bere ardura dela guztiek arrakasta izan dezaten.



## Eta ipuinak antzerki bihurtu ziren...

**“Itxi begiak eta imajinatu leihotik begira zaudetela. Zer ikusten duzue?”, galdetu dute Ainara Gurrutxaga eta Urko Redondo antzezleek. “Nik txakurra”, “Nik txalupa azul bat”, “Nik izarrak”, diote Urregarai Herri Eskolako neska-mutilek. Denek nahi dute ikusitakoa esan, denek jaso dute eskua, gogotsu.**

**Aulestin (Bizkaia) izan zen *Hik Hasi* Kandelario egun hotz batean. Eskolako txikienak San Blas opilak prestatzen ari ziren sukaldean. Urregaraiko ikasleekin antzezlan bat ikusteko asmoz joan zen haraino *Hik Hasi*, antzezlan berezi bat: Joseba Sarrionandiak idatzitako *Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako* liburuko hogeitau ipuin dramatizatu ikustera.**

Ainara Gurrutxaga eta Urko Redondo antzezleek egin dute ongietorria, lurrean zabaldua dagoen eta belarra dirudien alfonsbraren gainean esertzeko esanez. Hogeita hiru haur, haien irakasleak eta *Hik Hasi*ko kazetariak prest-prest jarri dira saioaz gozatzeko.



Erretzen ari den kandelaren usainak are magikoago egin du egoera.

Haurrak 4 eta 8 urte bitartekoak dira. Interesgarria izan da denak elkarrekin egotea. Izan ere, haien irakasle Itziar Aldaik eta Alicia Mintegik diotenez, “adin horretan, urte batetik bestera izugarrizko alde dago”. Denak zeuden begira-begira, baina bakoitza bere erara ulertzen ariko zela diote.

Maitasuna gorputzeko oso atal garrantzitsua izan arren, ez dutela marraztu anatomiako liburuetan kontatzen ari dira antzezleak, barrunbea arbel bihurtu zaion pailazoz mozorturik. Arbelean koloretako letra batzuk daude. Antzezleen eskariz, hizki-zopan ezkutatuta dauden hitzak esaten hasi dira haurrak: ama, sua, aita... Eta, azkenean, denen artean, topatu dute luzeena, letra guztiak dituen: maitasuna. Barre egin dute hurrek pailazo xeble harekin, gehien gustatu zaien ipuina horixe izan da, aho batez, anato-

mia ongi ulertu ez duten eta maitasunari hainbeste erreparatu ez dioten arren, akaso.

“Aldez aurretik esku artean genuen antzeztuko ziren ipuinen zerrenda”, esan du Aldaik. Ez zekien nolakoa izango zen emanaldia, ordea, eta haurrei ez zizkien ipuinak alde aurretik irakurri. “Oso interesgarria iruditu zait emankizuna, eta nire helburua da ipuinak berriro irakurri eta hausnarketa egitea. Ipuinak berreskuratu egin nahi ditut berriro, noizean behin baten bat irakurri eta ulertarazi. Garrantzitsua iruditzen zait ulermena lantzea: leihoak ireki eta hortik begira jarriko gara... baina zer dago ideia horren atzetik?”. Bide horiek sakontzea pentsatzen ari da Haur Hezkuntzako irakaslea.

Liburuko ipuinei buruz hausnarketa hauxe egin du Aldaik: “Aproposak iruditu zaizkit, didaktikoak. Gainera, dena oso irekia uzten du, oso interesgarria da alde horretatik”.



## Helduak, lehenago

Urregarai eskola txikia da, 58 bat ikasleak ditu. Zikloka elkartuta daude ikasleak, gela bakarrean. Udazkenean, Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloko ikasleek Ander Lipus eta Miren Tirapu antzezleak ikusteko aukera izan zuten. Hainbat pertsonaiaren bidez, hama-zazpi ipuin antzeztu zituzten: “Printzipioz, bidaia bat egiten ari diren bi pertsonaia dira, baina transformatu egingo dira eta beste pertsonaia batzuk sortuko dituzte”.

Aldez aurretik, irakasleek esku artean zuten antzeztuko ziren ipuinen zerrenda. Hala, antzezpenera aurretik ikasleekin ipuinak irakurri egin zituzten, eta liburuak dakarren proposamen didaktikotik hainbat jarduera egin zituzten: “Adibidez, Semaforoa ipuina irakurri ondoren, ikasleei galdetu genien: eta zuk, zer erantzungo zenioke? Edo berez atera ziren beste gauza batzuetatik tiraka ibili ginen”. Bea Zorrozak, haien irakasleak, azaldu duenez, eskolan idazmena eta irakurmena lantzeko beste proiektu bat dute, Idazlea zeu zara egitasmoarekin uztartzeko modukoa dena. “Ikuskizuna ikusi ondoren, liburuko beste ipuin batzuk irakurtzen jarraitu genuen, zenbait lan eginez: irudikapenak, kopiatze-lanak, antzekotasunen bilaketa, eta abar”, jarraitu du Zorrozak. “Eskolan lantzen ari garen beste proiektuarekin lotuz, ikasleei hauxe bururatu zitzairen: zergatik ez dugu guk ere ipuin bat idazten?”. Andoni Egañaren aholkuei jarraituz, gai bat aukeratu, eta ipuinean agertu behar zuten elementuak zehaztu zituzten. “Berekin egin zituzten ipuinak: asmatu, idatzi eta zuzendu”.

Neska-mutilek ipuinen aurrean izan zuten jarrerari buruz hauxe dio: “Leihoaren ipuina asko gustatu zitzairen, erabat murgildu ziren”. Beste



batzuk, ordea, “oso sakonak” direlako, “ipuinek adibide interesgarriak eskaintzen dituzte, laburrak dira, zenbaitetan egoera gogorak azaltzen dituzte, eta, behar bada, ikasleek ez dituzte erabat ulertzen, edo beste modu batera ulertzen dituzte”. Ipuinak erabat ulertzea baino garrantzitsuagoa izan da, ipuinak aitzakiatzat hartuta, ikasleek “ba guk be egingo dogu antzeko zer-bait” esatea.

Ipuinak sakonak izan arren, eta gauza asko lantzeko baliagarriak direla ikusi arren, “ikasleak iristen dira adostasunetara, baina kosta egiten zaie mui-nean sartzea, asko kostatu zait sentimenduetara iristea”, jarraitu du irakasleak. Barrea eragiten duten beste batzuk badaudela kontatu du, eta, or-





duan, “kontatu edo irakurri ondoren, ikasleek berehala beste bat irakurtzeko eskatzen dute: entzun eta entzun egin nahi dute”.

Zorrozairen iritziz, ipuinek aukerak eskaintzen dituzte neska-mutilen hausnarketak pizteko, baina “horrek irakasleari eskatzen dio alde aurretik ipuinak oso ongi aukeratzea eta lantzea. Ipuin batzuk errazak dira, beste batzuk ez hainbeste, baina aukerak eskaintzen dituzte”.

Ipuinak eskolako beste hainbat arlo lantzeko “aprobetxatu” daitezkeela azaldu du ondoren, “bizikidetzaz, tutoretzaz, eguneroko bizitzaz, edo arazo hau edo bestea dela, zorriak direla, norbait hil dela... horrek guztiak aukera handia ematen du, ohiko erantzunak erabili edo ez”. Sortaldea ipuinarekin, esaterako, Sarrionandiak munduko zenbait toki aipatzen dituela baliatuz, geografia lantzeko aprobetxatu zutela dio, eta, geografiarekin batera, leku horietako irudiak landu zituztela: “Marrazkiak egin zituzten, eta hainbat ariketa egiten aritu gara ideia horren gainean”.

### Haurrentzako antzezlanaz

ARTEDRAMA eta DEJABU PANPIN LABORATEGIA antzerki-konpainiek, elkarlanean, *Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako* liburuko testuetan oina-

rritutako lana sortu dute. Xede nagusia ipuinen lanketa sakonagoa egitea da. Neska-mutilei antzerkiaren bidez hausnartzeko aukera eman nahi zaie modu zuzenagoan, hurrekin antzerkia, ipuingintza eta irakurzaletasuna lantzeko berez izan dezakeen berezko interesarekin batera.

Egitasmoaren web-orrian ikus daiteke informazio guztia, baita antzezlanak ikusi duten hurrek sortutako ipuin eta marrazkiak ere.

Aulestiko eskolako ikasle helduek argi ikusi dute ipuinek ez dituztela ohiko amaiera onak, amaiera normalak dituztela. Ikasitakoa aprobetxatu egin

dute antzerkia ikusi ondoren sortu dituzten ipuinei “tipikoa” ez den amaiera emateko. Gainera, sortu dituzten ipuinetan ez dago hilketarik, amaieran ez dago ezkontzarik edo ipuin gehienek duten elementu tipikorik, liburuan irakurri dituzten ipuinen antzera.

Txikienean, berriz, olerki hauxe sortu dute pailazoaren barrunbea irudikatzen erabilitako arbelean:

- Belarra usaindu dut.
- Hodeia ikusi dut.
- Bihotza sentitu dut.
- Pailazoa gustatu zait. ●

### Datu praktikoak

**Lan mota:** 6 urtetik 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako ipuin kontaketa dramatizatua.

**Iraupena:** 45-50 minutu.

**Prestakuntza:** egokiena lehenago eta ondoren ipuinak lantzea da (horretarako, *Hik Hasik* argitaratutako proposamen didaktikoa kontsulta daiteke).

**Ikuskizun motak:** 1. Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailako haurrei zuzendua.

2. Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleei zuzendua.

**Aktoreak:** Ander Lipus, Miren Tirapu, Urko Redondo eta Ainara Gurrutxaga.

**Informazio guztia:** [www.idazleazeuzara.com](http://www.idazleazeuzara.com)

## Arreta gabezia ikasgelan



Nerea Gutierrez Gaite

**Gure geletan betidanik izan den arazoa izan arren, jendartean gaur egun ari da ezagun egiten Arreta Gabeziaren eta Hiperaktibitate Nahastearen (AGHN). Arazo horrek eragin zuzena du eskolako errendimenduan.**

### Zer da AGHN?

Jatorri neurobiologikoa duen herentzia-arazoa da Arreta Gabeziaren eta Hiperaktibitatearen Nahastea (Barkley, 1999). Berezko hiru sintoma ditu: arreta gabezia, oldarkortasuna eta hiperaktibitatea (motorra edota ahozkoa).

Nahaste hori duten haurren artean, alde handiak daude. Nahiz eta haurrak parametro bertsuetan kokatu, haur guztiek ez dituzte sintoma berak, eta ez dituzte indar berarekin agertzen. Horregatik, hainbat kasu aurki daitezke:

haur batek arretarekin zerikusia duten zailtasunak izan ditzake, baina, agian, ez du hurkoek baino erantzun oldarkor gehiago agertzen.


**Tratamendua:** nahaste mota horri eman dakiokkeen tratamendurik egokiena tratamendu multidiziplinarioa da. Izaera multidiziplinario horrek honako hauek uztartzen ditu: tratamendu psikologikoa, farmakologikoa eta psikopedagogikoa.

Hezitzaileon esku tratamendu psikopedagogikoa dago. Horren ondorioz, nola egin diezaiekegu aurre arreta-gabeziak ikasgelan sortzen dituen arazoei? Ondoren aipatzen direnek tratamenduaren gainekoak argitzeko balio dezakete.

### Nolako ikasleak dira?

Nahaste hori duten haurrei oso zaila egiten zaie eskolako zereginean

jardutea. Hori dela-eta, ikasle horien %16-29k arazoak azalduko dituzte ikasketan; hots, ikasle horiek irakurmenean, kalkuluan edo idazmenean duten gaitasuna ez dator bat beren adinarekin, eskolatzarekin eta adimen-mailarekin. Bestalde, dituzten kontzentrazio-, planifikazio- eta antolakuntza-gabeziengatik, besteek baino eragozpen handiagoak dituzte ikasturtean aurrera egiteko.



ADANA fundazioko materiala



### **Ikasgela barruko esku-hartze pedagogikoa**

Eskolan egindako esku-hartzeetan eraginkortasuna lor daiteke, hainbat jarraibide aintzat hartuta. Ondoren aurkezten diren gomendioak baliagarriak izango dira bai ikasle hiperaktibo-inputsiboekin erabiltzeko, eta bai, AGHN izan gabe, arreta-gabezia duten ikasleekin erabiltzeko ere.

### **Nola eman argibideak ikasleei?**

Ikaslearen arreta ziurtatzeko, ezinbestekoa da begizko kontaktuari eta gertutasun fisikoari eustea. Eman beharreko argibideak, banan-banan, eta era positiboan ematea komeni da, ahalik eta era labur eta zehatzenean. Emandako argibideak betetzen dituenean, berehala gorai patuko dugu ikaslea.

### **Nola azaldu eduki akademikoak ikasleei?**

Hezitzaileak emandako azalpenak motibatzaileak eta dinamikoak izango dira, adibidez, gaitegia ikaslearen egunerokotasunera hurbilduz, eta abar. Era horretara, ikaslearen parte-hartze aktiboa sustatu egingo da erabat. Azalpenak alde zurretik egituratuta eta antolatuta egongo dira.

### **Nola esleitu etxerako lanak?**

Egin beharrekoek formulazio arrunta eta argia izango dute. Luzee-

giak diren ariketak zatitu egingo dira: bi orriko azterketa batean, orri bakarra bi aldeetatik idatzita eman beharrean, bi orritan ematea egokiagoa da, adibidez. Kontzentrazioari mesede egite aldera, kontrola bi alditan egingo da: lehenengo jolastokira joan aurretik, eta, bigarrena, jolastokitik itzultzerakoan, adibidez. Era berean, hezitzaileak etengabe egingo ditu gainbegiratze- eta sendotze-lanak.

### **Lanerako ingurua:**

arreta ziurtatzeko, ikasle horiek hezitzailearengandik hurbil eseriko dira, haien arreta bereganatu


dezaketen leihotatik eta dekorazio-elementuetatik urrun.

### **Nolako trataera eman ikasleari?**

Lehenik eta behin, ikasleari helburu zehatz eta laburrak ezartzen lagundu behar zaio. Horregatik, ikasketetan laguntze aldera, eguneroko erreposoa sustatuko da, mapa kontzeptualak, eskemak eta laburpenak erabiliz. Hala-ber, ikaslea animatu behar da agenda era sistematikoan erabiltzera. Agendaren erabilera egokia egiten bada, zori-nak ematea komeni da.

### **Nola aurre egin jokaera-arazoei?**

Ikasle horien portaera hobetzeko, ezinbestekoa da ingurua egituratua, errutinazkoa, antolatua eta gogo-pizgarria izatea. Neska-mutil horiei, gehienetan, kosta egiten zaie beren buruaren kontrolari eustea. Zailtasun hori nabarmenago agertzen da eskolako zereginak zailak edo aspergarriak direnean;





denbora-tarte luze batez zereginak egitea eskatzen zaienean; hezitzaileak kontrol urria egiten duenean; ikasleak kontrolatzen ez dituen jarduera-aldaketak egiten direnean; ikasleak ez dakienean beregandik zer espero den; soilik akatsak gogorarazten zaizkionean; eta gehiegizko zigorrak jartzen zaizkionean.

### Jarraitu beharreko estrategiak:

sendotze positiboa, maiztasun handiagoz errepikarazi nahi den jokaera goraiatzea; iraungipena, hainbat jokabideri arretarik ez eskaintzea; *time out*, jarrera desegokiez ohar tzeko ikaslea txokora bidaltzea; eta mugen ezarpena. Aipatutako tresna horiek funtsezko estrategiak dira jokabideak kontrolatzeko. Horien guztien adibide gisa, honako teknika hau:

### Dortokaren istorioa:

Bazen behin Jon dortokatxoa. Jonnek 10 urte zituen eta Lehen Hezkuntzako 5. mailan zebilen. Jonek ez zuen eskola gogoko, ez baitzitzaion ikastea gustatzen. Horren ordeztu, nabiago zuen lagunekin jolastea edo telebista ikustea. Aldiz, irakurtzea, lanak egitea, ulertzen ez zituen matematikako buruketak egitea eta idaztea gorroto zituen. Gainera, ez zen gai bidaltzen zizkioten etxerako lanak agendan

idatzi behar zituela gogoratzeko. *Halaber, inoiz ez zen liburuak eta materiala etxera eramateaz gogoratzen.*

*Ikasgelan erabat aspertu egiten zen. Gehienetan eskolako lana oztopatzen zuen eta ikaskideak gogaitu egiten zituen. Batzuetan, lan egiten saiatzen zen, baina dena azkarregi egiten zuen, berebala amaitzeko.*

*Amorruz gainezka egiten zuen txarto egin zuela esaten ziotenean. Hori gertatzen zenean, orriak zimurtu eta mila zatitan apurtzen zituen.*

*Goizero, bere buruari esaten zion abal zuen heinean abalegindu behar zuela zigorez zezaten, baina arazoak sortzen zituen beti. Horregatik, sarritan, pentsatzen zuen: "Dortoka gaiztoa naiz", eta oso gaizki sentitzen zen.*

*Goibel zegoen egun batean, hiriko dortoka handienarekin, zabarrenarekin eta zentzudunenarekin topo egin zuen, eta zera esan zion: "Ez zara konturatzen zure gainean daramazula arazoaren irtenbidea?"*

*Jon dortoka galdurik zebilen, ez baitzekien zertaz ari zen. "Zure eskola!", azaldu zion. "Esaten edo egiten ari zarenak amorrua ematen dizunean zure barruan ezkuta zaitzezke. Orduan, oskolaren barruan zaudenean, inork ez zaitu gogaituko, eta lasaitasun une bat izango duzu arazoa aztertzeke eta irtenbide bat bilatzeko".*

*Jon dortokari primerako ideia iru-*

*ditu zitzaion eta, hurrengo egunean, eskolan betikoa gertatzen hasi zenean, oskolaren barruan ezkutatu zen.*

*Atsegin egin zitzaion bakarrik egotea, lasai asko. Guztiz baretu zenean, oskoletik atera zen eta harritu egin zen irakaslea berari begira zegoela ikusi zuenean, irribarretsu eta pozik bere burua kontrolatu abal izan zuelako.*

*Bien artean arazoa aztertu zuten, eta Jon konturatu zen, dortoka zaharrek azaldutako teknika erabiliz, bere buruaren kontrol handiagoo lor zeakeela eta hobeto senti zitekeela, gainerako kideak gogaitu gabe.*

### Hezitzailearen garrantzia

Ez dago zalantzarik: heztea lan nekeza da. Hainbat irakaslek adierazten dutena kontuan izanik, ziurta daiteke arreta jartzeko arazoak dituzten ikasle- en premiei erantzuteko zailtasunak dituztela.

Edozein modutan, hezkuntzaren esparrutik saiatu behar da buruhauste horiek motibazio bihurtzen, kezkatik ardurara igarotzen, alegia. Arlo horretan eraginkortasuna lortzeko, ezinbestekoa da irakasleen trebakuntza, eta, horretarako, hainbat estrategia aintzat hartu behar dira.

Heztea ereitea da. Baina, hezigai horien edo ikasle horien berariazko premiei erantzuteko eragozpenak daudenean, haziak hezteko trabak izango dituela dirudi. Haatik, hazi, loratu eta fruitua ematen du. Gakoa: hezitzaileak arreta, pazientzia, lasaitasuna, ardura eta segurtasuna izatea. ●

### Bibliografia

- ADANA Fundació. *El alumno con TDAH*; Bartzelona. 2006ko maiatza.

- BARKLEY, RA: *Niños hiperactivos. Cómo comprender y atender sus necesidades especiales*. Paidós Ibérica, Bartzelona. 1999.

- Orjales Villar I. *Déficit de atención con hiperactividad*. Cepe, Madrid. 1998.

- Helbide interesgarria:

<http://www.eusarghi.org/>

## Nola garatzen da 8 eta 30 hilabete bitarteko haur euskaldunen komunikazioa?



Haur euskaldunen komunikazio-garapena aztertzeko proiektu bat egin dugu. Proiektu horretan, *Communicative Development Inventories (CDI)* neurketa-tresnaz baliatu gara. MacArthur Fundazioak sortu zuen CDI, 1993an, AEBn, eta jada 40 hizkuntza baino gehiagotara egokiturik dago. Esan daiteke, komunikazio-garapen goiztiarra aztertzeko, nazioartean gehien erabiltzen den diagnostik-tresna dela.

Haurrak hizkuntza-garapenean izan ditzakeen atzerapenak aurreikus- teko balio du tresna horrek, eta, era berean, neurri egokiak hartuta, atzerape- nek ekar ditzaketen kalteak ekiditeko. Hiru adin-tarte neurtzeko, hiru galde- tegi ditu: 8-15 hilabete; 16-30 hilabete; eta 30-50 hilabete. Neurketa gurasoek emandako informazioan oinarritzen da.

Lehenengo adin-tartean (8-15) hiru alderdi neurtzen dira, batez ere: uler- men- eta ekoizpen-lexikoa eta keinu



Iñaki GARCIA

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

komunikatiboen ekoizpena. Bigarren (16-30) eta hirugarren (30-50) adin-tar- teetan, beriz, ekoizpen lexikoa eta ekoizpen morfologikoa neurtzen dira.

Tresna hori, beraz, adin horietako haur euskaldunen komunikazio-gara- peno nolakoa den ezagutzeko baliaga- rria da. Orain arte, 1.500 haurren da-

tuak bildu ditugu eta, datu horietan oinarrituta, 8 hilabetetik 30 hilabetera bitarteko haurren komunikazioa nola garatzen den zehazteko moduan gau- de; noski, hemen ematen den informa- zioa batez bestekoetan oinarrituta dago, edo beste modu batean esanda, gehiengoaren komunikazio-garapena nolakoa den deskribatzen da hemen, baina kontuan hartu behar da adin hor- rietan norbanakoaren aldakortasuna oso handia dela, eta haur guztiek ez du- tela erritmo bera komunikazio-gaitasu- na garatzean.

### Komunikazioa horrela garatzen da:

**8 hilabeteko haurrak:** 14 hitz uler- tzeko gai dira. Gehien azaltzen diren hitzak, haurrak familiako pertsonak izendatzeko erabiltzen dituenak dira: **aita, ama, amona, aitona** eta **haurraren izena**. Era berean, elikadurarekin ha-

rremana dutenak agertzen dira: **bibe-roia, jan** eta **txupetea**; horiekin batera, oso maiz errepikatzen diren egunero-ko ekintzekin lotutako hitzak daude: **agur, hartu, bainatzera, begiratu, ikusi** eta **txakurra**.

Adin horretako haurrek oraindik ez dute hitzik ekoizten, baina hiru keinu komunikatibo egiteko gai dira; gehien egiten dituztenak hauek dira: aupa edo besotan hartzeko besoak jasotzea; eskuaz zerbait eskatzeko besoa luzatzea; eta eskuan duen objektua edo jostailua norbaiti emateko besoa luzatzea.

**10 hilabeteko haurrak:** arlo semantiko hainbat 43 hitz ulertzeko gai dira. Adin horretan ekoizten da lehen hitza, kasurik gehienetan, **aita**.

Bestalde, ahozko keinu komunikatiboen arloan 6 keinu egitera iristen dira. Aurrekoei gehitzen zaizkien hiru berriak hauek dira: bere kabuz aguregitea norbait badoanean; buruaz ezetz esatea; eta musu edo *pabotatzea*.

**12 hilabeteko haurrak:** dagoeneko 83 hitz ulertzeko gai dira. Aho-hizkuntzan gertatutako bilakaera, ordea, ez da hain nabarmena, 3 hitz esaten baititu. Maiztasun handienez esaten diren hitzak **aita, ama** eta **guau-guau** dira. Keinu komunikatiboak 8 dira, berriak: objektu edo gertaera interesgarriren bat seinatzea besoa edo hatza luzatuz, eta eskuan daukaten objektua edo jostailua emateko besoa luzatzea.

**14 hilabeteko haurrak:** ulertzeko gaitasunak nabarmen egiten du gora, jada 124 hitz ulertzeko gai dira. Ekoizpenak ere hazkundera izan du, 8 hitz esaten dituzte, eta hauek dira maiztasun handienez esaten dituztenak: **aita, ama, guau-guau, muu, brun-brun, amona, aitona** eta **ura**.

Keinuen errepertorioari, aldiz, gus-tuko duen janaria adierazteko *n̄an-n̄an* edo gisako hotsen bat egitea gehitzen zaio.

**16 hilabeteko haurrak:** 28 dira jada esaten dituzten hitzak. Adin horretatik aurrera, hitzen ekoizpenak etengabe egiten du gora. Bide batez, hiztegi-az-jabetzen doazen heinean, poliki-poliki, hitzak lotzen eta konbinatzen hasiko

dira; haurren %4k lotzen ditu hitzak elkarren artean.

**18 hilabeteko haurrak:** jada 70 hitz ekoizten dituzte, eta hitzak elkarren artean lotzen dituzten haurren ehunekoa %14ra iristen da. Oraindik ez dute aditzik jokatzeko, eta ez dute marka morfolo-  
gikorik erabiltzen.

**20 hilabeteko haurrak:** batez beste, 116 hitz ekoizten dituzte, eta haurren erdiek lotzen dituzte hitzak. Lehenengo, marka morfolo-  
gikoak ekoizten eta aditzak jokatzeko hasten dira. Haur euskaldunek ekoizten duten lehen marka morfolo-  
gikoa partizipioa da, ekintza-  
ren edo gauzaren bat bukatuta dagoela adierazteko aditzei *-ta* edo *-a* bukaera eranstea: apurtuta, ikusia, eta abar.

Adin horretan jokatzeko duten lehen aditza **goazen** da.

**22 hilabeteko haurrak:** hitz-ekoizpe-  
na 151koa da, eta haurren %77 hasia da jada hitzak lotzen. Aditzen jokaerari eta morfolo-  
giari dagokienez, ez da apar-  
teko aldaketarik gertatzen aurreko hi-  
labeteekin alderatuta.

**24 hilabeteko haurrak:** batez beste, 235 hitz esaten dituzte.

Marka morfolo-  
gikoei dagokienez, partizipioaz gainera, atzizki txikigarr-  
riak, *-txo*, edo *-ño* eransten hasiko da hitzei: **amatxo, maiteño**, eta abar. Era berean, jabetza adierazteko atzizkiak erabiltzen hasiko da, *-ren* erantsiz hitzei: **amarena, umearena** eta abar.

Aditzak jokatzeari dagokionez, al-  
diz, 3. pertsona adierazteko aditzak erabiltzen hasiko dira, eta **da** eta **dira** aditz-formak dira maiztasun handie-  
nez ekoizten dituztenak.

**26 hilabeteko haurrak:** jada 295 hitz ekoizten dituzte. Aurreko marka mor-  
fologikoei ergatiboa gehitzen zaie; hau da, ekintza nork egiten duen adierazte-  
ko *-keransten* diete hitzei: **amak, ume-  
ak**, eta abar, eta 5 aditz jokatzeko diete jada: **goazen, da, dago, dut** eta **nago**.

Aipagarria da, adin horretan, 1. perso-  
na adierazteko lehen formak agertzen hasten direla.

**28 hilabeteko haurrak:** 375 hitz esate-  
ko gauza dira, eta haurren %95k lotzen ditu hitzak beren artean. Dagoeneko,

**Munduko populazioaren erdia omen da elebiduna: elebitasuna leku guztietan eta giza talde guztietan gertatzen da. Hizkuntza batetik bestera itzultzeko gai izan arren, arazoak izan ditzakete arlo batzuetan.**



datiboa: gauzak edo bestelakoak nori egin edo ematen zaizkion adierazteko *-ri* edo *-i* eransten diete hitzei: **amari, umeari** eta abar.

Aditzei dagokienez, dagoeneko 10 aditz jokatzeko dituzte; aurrekoez gain, hauek: **naiz, dakit, duzu, daukat** eta **zara**. Gainera, 2. pertsona adierazteko formak agertzen dira.

**30 hilabeteko haurrak:** batez beste, 401 hitz esaten dituzte eta 6 marka mor-  
fologiko erabiltzen dituzte. Aurreko markei pluralen markak gehitu zaizkie: gauza askori buruz hitz egiterakoan *-k* eranstea: **umeak, txoriak**, eta abar.

### Gehiago jakiteko:

BARREÑA, A.; GARCIA, I.; EZEIZA-BARRENA, M.J.: "Elebikarren eta elebi-  
dunen euskararen jabetzaren erri-  
moaren inguruan", *in* Gogoia, 9(2009), 63-92. or.

BARREÑA, A.; GARCIA, I.; EZEIZA-BARRENA, M.J.; ARRATIBEL, N.; OLANO, I.; BARNES, J.; PETUYA, A.; COLINA, A.: *MacArthur-Bates komunikazio garapena neurtzeko zerrenda. Euskarara egokitua. Erabiltzaileentzako gida eta eskuliburu teknikoa*, UEU, Bilbo, 2008.

GARCIA, I.; ARRATIBEL, N.; BARREÑA, A.; EZEIZABARRENA, M.J.: "Generoaren eragina komunikazio-  
aren garapenean 8-30 hilabete bitarteko haur euskaldunetan", *in* Uztaro, 75 (2010), 25-35.

# Herri ekimeneko euskal hedabideek sektorearen diagnostiko eta erronka komunak aurkeztu dituzte

2011n elkarrekin hasitako bideari jarraiki, herri ekimenez sortutako euskarazko hedabideok sektorearen diagnosis eta erronka komunak identifikatzen dituen dokumentua sinatu eta jendaurrean aurkeztu dugu.

Zentzu hertsian publikoak ez izan arren, funtzio sozial agerikoa dugula gogorarazi nahi izan dugu euskal hedabideok, *“bai euskararen garapenean dugun zeregin funtsezkoagatik, bai euskal hiztunen komunitatearen baitan komunikazioa lantzeak eta jorratzeak suposatzen duenagatik”*. Azken 25 urteetan, batez ere hezkuntza dela eta, urrats handia eman da euskararen ezagutzaren eremuan, horretan ez da zalantzarik. Erabileran, aldiz, hizkuntzaren osasuna adierazten duen neurgailurik zehatzenean, zailtasun handiak daude. Eta gurea bezalako gizarte moderno batean nekez egingo dira urratsak hedabide sare indartsurik ezean. Azken finean, hiztun komunitate guztiek dute mundua beren hizkuntzan ikusteko eta kontatzeko beharra, eta euskal hedabideok giltzarri den zeregin horren muinean gaude. Euskaraz ez badugu egiten, beste hiztun komunitate batzuek egingo dute gure ordez, gazteleraz, frantsesez edo ingelesez.

Sektorearen pisu sozial eta kulturalarekin batera, ekonomikoa ere ekarri nahi dugu gogora: euskarazko hedabideen lana 450.000 lagunengana iristen da, eta horretarako 600 langile baino gehiago ari dira lanean 100dik gora hedabidetan. Guztira 27 milioi eurotik gorako aurrekontua mugitzen dugu urtean, eta 7 milioi eurotik gorako ekarpena egiten dugu diru publikoetara, gizarte segurantza eta zergen bidez. Ikuspuntu horretatik ere, gure jardunaren garrantzia azpimarratu eta kontuan hartua izan dadin eskatzen du sektoreak.

Ezagun da Informazio eta Komunikazio Teknologien hedapenak zer nolako krisi sakona ekarri duen mundu osoan komunikazioaren sektorera, eta 2008az geroztik bizi dugun krisi ekonomikoak aurreko hori areagotu besterik ez duela egin. Mundu mailan zein gure artean ere, agerikoak dira ondorioak, gogoratu besterik ez dago azken bi urteotan bidean geratu diren euskarazko komunikazio proiektuak: Ttipi-Ttapa Telebista, Geu Gasteiz, Txaparro, Esan-Erran Irratia, Nabarra...

Aldiberean, azpimarratzekoa da euskal hedabideok inguruko beste hizkuntza handietakoak baino hobeto egiten ari gatzazkiola aurre krisiari. Azken finean, ohituta gaude krisi betean aritzera, eta ondo baino hobeto dakigu belar motzean ibiltzea zer den.

Kontuak kontu, euskal hedabideok azpimarratu nahi izan dugu testuinguru zail horretan etorkizunari buruzko gogoeta estrategikoa elkarrekin egiteko ahalegina, eta eskertu GIPUZKOA BERRITZEN-INNOBASQUEk gogoeta horretan laguntzeko erakutsitako prestutasuna. Elkarlan horren emaitza hedabideek sinatu dugun dokumentua da. Agiriak sektorearen gaur egungo argazki zehatza aurkezten du eta, horretan

oinarrituta, aurrera begirako erronka nagusiak proposatzen ditu. Erronka horiek honela laburbildu litezke:

- **Negoio eredia eta lan baldintzak.** Hedabideok inbertsio handiak egin behar ditugu (eta egiten ari gara), batetik teknologiak eragindako negozio ereduaren aldaketari aurre egiteko, eta bestetik bertan diharduten langileen lan baldintzak hobetze aldera.

- **Salmenta, kalitatea eta lehiakortasuna.** Atzean ez geratzeko eta bezeroei merezi duten zerbitzua eta produktuak eskaintzeko, euskal hedabideok ekoizten ditugun produktuen kalitatea eta kudeaketa ere hobetu behar dugu. Gaur egungo produktuak estimatzen badira ere, salmentan eta merkatu mekanismoen ezagutzan asko sakondu behar dugu oraindik.

- **Hausnarketa eta ikerketa.** Etengabeko berrikuntzaren aroan, ikerketa eta hausnarketa ere ezin ahaztu: euskarazko hedabideak zer garen, zer helburu bete behar dugun, nolakoak garen eta izan behar dugun, audientziak, kanpoko esperientzietatik ikastea eta, helburuak betetzen doazen heinean, beste hizkuntzetan aplikatzeko moduko esperientzia eta produktuak esportatzea. Hori dena garatzeko, **hedabideen behatoki baten beharra** argi ikusten dugu.

- **Elkarlana:** garai zailei bakarka baino taldean hobeto egiten zaie aurre, eta alde horretatik badugu zer landu, hedabideok geure artean zein instituzioekin batera. Sektoreko ki-deok onartzen dugu elkarren lehiakide garela hainbat eta hainbat kasutan, baina elkarrekin ere jardun dezakegula guztion onurarako; kooperatibitatea landu behar dugula, alegia.

- **Erakundeen laguntza politika.** Deialdien sistematik hitzarmen eruedetara joatea ezinbesteko ikusten dugu. Beharrezkoa da erakundeek laguntza politika egokitzea eta sektorearen inbertsioak eta garapena sustatzea.


Laburbilduz, herri ekimeneko euskal hedabideon ustez garaia da erronka horiei sendotasunez heltzeko, eta beste molde eta bide batzuk jorratzeko, irudimena landuz, gogotik arituz eta batez ere elkarlanean, hedabideon artean, zein erakunde publikoekin eta jendartearekin berarekin ere.

Hala, gaur aurkeztutako lana, bide baten amaiera baino, bide luze baten hasiera dela azpimarratu nahi dugu. Dokumentua sinatzearekin, herri ekimeneko euskal hedabideen etorkizun hurbila zein urruna bermatu nahi duen elkarlana abiatu dugu, sektore antolatua gisa funtzionatzen hasi ahal izateko lehen harria.

Sektore hori eguneratzeko, gogoeta egin nahi dugu hedabideok, erabiltzaileekin, eragileekin eta administrazioekin batera. Horregatik, sinatutako dokumentua hartarako prestutasuna agertu duten erakundeetan aurkeztuko dugu, gogoe-tarako oinarri baliotsua izan daitekeelakoan. Erakundeei, bide horretatik, hausnarketa mahai bateratua eratzeko deia egin nahi diegu.



Bide eginean jarraitzen dugu zuen  
ekarpenekin eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa duen edonoren  
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal  
hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.

apirila

berriak

# Legebiltzarra Eusko Jaurlaritzari Gorputz Hezkuntzako orduen eske



SOHAT-ek (Gorputz Hezkuntza-ren Aldeko Taldeak) eta COLCAFID (Kirolaren Zientzietako Lizentziadunen Euskal Herriko Elkargoak) elkarretaratzea egin zuten Eusko Legebiltzarren aurrean, "Gorputz Hezkuntza-ren duintasunaren alde, dekretua aldatu" pankarta aurrean zutela.

Eusko Jaurlaritzaren 2007ko dekretuak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeetan ikasgaien gutxienerako ordutegiak zehaztu zituen, astean gor-

putz hezkuntzari gutxienez ordu eta erdi eskaintzea ezarri zuen: murrizketa gogorra Gorputz Hezkuntza ikasgaiarentzat. Bi taldeek, kopuru hori bi ordu-ra igotzeko eskatu zieten politikariei. Legebiltzarrak eskaria onartu zuen, eta orain Eusko Jaurlaritzari eskatu dio astean gutxienerako bi orduko kopurua Gorputz Hezkuntza ikasgaiarentzat.

Zehazki, Legez Besteko Proposamena eztatidatu zuen Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeak. Alderdiek,

aldeko 11 botorekin eta kontrako 6rekin onartu zuten proposamena. Hain zuzen, PPren 3 boto, EAJren 7 eta Aralar alderdiaren boto 1 jaso zituen proposamenak, PSOEren aurkako 6 boto izan zituen eta EAK, bere aldetik, ez zuen bozkatu.

## Ikerketak dioena

2007ko dekretuak astean gutxienez Soin Hezkuntzako ordu eta erdi ezarri zuen LHko maila guztietan; 1996ko dekretuarekiko %40ko murrizketa esan nahi zuen horrek. DBHn %38 murriztu zuen ikasgai hori. Haatik, esan duten ikerketa baten arabera, murrizketak ez datoz bat hezkuntza komunitateak irakasgaiari ematen dion garrantziarekin. Bultzatu beharreko hirugarren ikasgaia dela uste dute zuzendaritza taldeek, irakasleek, gurasoek eta ikasleek, atzerriko hizkuntzen atzetik. **Informazioa: *bik hasi* 162.**

## Hezkuntzan, GEU ERAGILE

Irungo (Gipuzkoa) Txingudi ikastolan krisiaren eta murrizketen gaineko eztatida zabaldu dute ikastetxean.

Sindikatu abertzaleek adostutako testuak pentsarazi zien eta hilean behin biltzen den talde txiki bat osatu zuten. Helburua, "eraso horien aurrean etsipena gainditzea eta antolatzea da, beti ere ikastetxea bera delarik oinarria, bertatik arazoak baloratzea errazagoa, ikusgarriagoa egiten zaigulako eta horrela beste erakunde batzuk, hots sindikatuak, bete ezin duten espazioei erantzuna ematen saiatzen garelako".

Dagoeneko manifestu bat egin dute ikastetxean eta inguruko ikastetxeetan zabaltzeko. Ikastetxean sortzen ari diren sarea beste ikastetxeetara eta es-

kualdera (Irun-Hondarribia) zabaldu nahi dute.

Hasiera-hasieratik garbi dute gurasoak bidaide dituztela, eta haiekin partekatuko dute ekimena. Izan ere, Txingudi BHko ikasleak adin txikikoak dira.

Hainbat bilera eta ekimen dituzte jada aurreikusita. Ekimena, sare sozialetara zabaldu dute, eta *facebook*-en taldea ireki dute "Hezkuntzan Geu eragile" izenarekin. Bertan, manifestua plazaratzeaz gain, atxikipenak, egitasmoarekin zerkusia duten berriak eta ekimen taldean sortutako materialak aurki daitezke.



Informazio gehiagorako edo taldearekin harremanetan jartzeko:

[www.facebook.com/groups/198162816951489/](http://www.facebook.com/groups/198162816951489/)

# Zientzia Live!, zuzeneko zientzia eskolan

Elhuyar Fundazioak, UPV/EHUko Kultura Zientifikoaren Kadredarekin batera eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babesarekin Bizkaiko eskoletan *Zientzia Live!* proiektua jarri du abian. Eki-men hori, zientzia ikastetxeetara gerturatzeko eskaintzen diren zuzeneko emanaldiak dira.

*Zientzia Live!*en helburua da zientzia modu erakargarrian eskaintzea gazteei, haien zientziarekiko jakin-mina sustatu eta irudimena pizteko. DBH 3. eta 4. mailako ikasleei zuzenduta dago, haientzako curriculumarekin lotutako gaiak jorratzen baitira. Emanaldiek ordu eta erdiko iraupena dute, eta hiru tailerrek osatzen dute: Gasak eta Presioak, Materialak eta Nitrogenoa eta Tenperatura baxuak. Euskal Herriko Unibertsitateko zientzia-ikasketetako azken ikasturteetako ikasleak dira emanaldietako begiraleak, eta, haien laguntzarekin, zuzeneko emanaldiak



ikusteaz gain, horietan parte hartzen dute, modu dibertigarrian, ikastetxeetako ikasleak. Loiuako (Bizkaia) Lauro ikastolako ikasleek, esaterako, lehen tailerlean helioa hartu ondoren ahotse-

an gertatzen diren aldaketak ikusi zituzten; bigarren tailerrean, elur artifiziala nola sortzen den ikusi zuten; eta hirugarrenean, hainbat material izozteko aukera izan zuten.

## Artedrama Euskal Laborategia martxan

Aulestin (Bizkaia) egingo dute ADEL, Arte Drama Euskal Laborategia apirilaren 9tik 15era. Aurten ere, arte eszenikoetan euskaraz lan egiten dutenentzako topagunea izango da.

Egitasmoak bi adar izango ditu: formazioaren oinarritua bat, eta AulestiArte deitutako egitasmoa, bestea.

Formazioaren atalari dagokionean, sei eguneko iraupena izango du, eta egun bakoitzean 8 orduz iraungo du. Hainbat irakasle gonbidatuko dituzte: Ander Lipus, Iñaki Ziarrusta, Ana Elordi, Eñaut Gantxegi eta Asier Sota.

AulestiArten, berriz, egunero ekitaldiak eskainiko dira, eta horien artean antzerkia izango da nagusi.

Aulestin ikusi ahal izango diren antzerki-lanak hauexek izango dira, besteak beste:

“Xentimorik gabe”, “Gabriel Gabrielle”, “Tzimi”, “Gloriaren kantua”, Joxe Mari Karrera eta “Ispilua”.

Informazioa:

[www.artedrama.com/eus/formacion.php](http://www.artedrama.com/eus/formacion.php)



# Akordioa jomuga, hezkuntzan



Hezkuntza sisteman akordio zabal bat sustatzeko helburua duen sinpo-

sioa antolatu zuen Kristau Eskolak Bilboko Euskalduna Jauregian. Euskal hezkuntzako eragileen artean gogoe-ta eta eztabaida ireki-tzea bultzatu nahi izan zuen, era horretara.

“Sistema osatzen dugun eragileen eta Ad-ministrazioaren arteko elkarlanean oinarrituz, guztion artean bikainta-suna helburu duen hez-

kuntza-sistema eraiki behar dugula

pentsatzen dugu”, adierazi zuten sinposioko antolatzaileek.

Hezkuntza eragileek mahai-inguru bat osatu zuten, eta, ondoren, Hez-kuntza Batzordeko euskal legebiltzar talde guztietako bozeramaileek beste mahai-inguru bat osatu zuten.

Horiez gain, Kristau Eskolako le-hendakari Joseba Kamiruagak eta Eus-ko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburu Isabel Zelaak-hitzaldia eskaini zuten, eta Kristau Es-kolako Zuzendari Nagusi Aitor Bilbaok oinarritzko txostena aurkeztu zuen.

## Elkarbizitza eredu berri baten bila

Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren aldeko apustua berretsi zuen Ikastolen Ekarteak, Donostian eta Gazteizen egin zituzten XIX. Jardunaldi Pedagogikoetan. Horretarako, “sei konpromiso zehatz hartu dituztela” iragarri zuten ikastoletako ordezkariak.

Aurretik giza eskubideen aldeko apustua egina bazuten ere, “egoera berriak apustu hori eguneratzea eskatzen du, orain”, adierazi zuten.

Hartutako konpromisoen artean, euskal curriculumean elkarbizitzaren ikaskuntza sakontzea dago, “ikastola bakoitza, ikasleak, gurasoak eta profesionalak bizitza osorako hezkuntzaren ikuspegitik norbera izaten eta elkarrekin bizi-tzen jakin dezagun”.

Horrekin batera, ikasmaterial berrituetan elkarbizitzaren ikaskuntza areagotu eta hobetuko dute, giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen aldeko errespetua eta defentsa gara-tuz.

Hartutako beste konpromisoa, prestakuntza planean el-karbizitzaren ikaskuntza laguntzeko jarduerak diseinatzea da.

Eta azkenik, berriz, ikastolek elkarbizitzaren aldeko eki-men sozialetan esku hartzea da.

Laburbilduz, “hezkuntza talde bezala, ikastola bakoitza-



ren autonomia zainduz, giza eskubideen errespetua eta ikasle bakoitzaren kontzientzia kritikoa uztartzen dituen ildoak garatu beharra dugu. Horren bidez, eskola komunitate osoarekin, in-guruko gizartearekin eta gainerako ikasleekin elkarreaginean, ikasleek aipaturiko balioak bereganatzearekin batera berariaz-ko jarrerak eta portaerak azaltzeko konpetentzia adieraz de-zaten”.

# Txantxariak, Euskal Jolasen Bildumarako



Gipuzkoako Urtxintxa Eskolak Euskal Jolasen Bildumako 4. zenbakia argitaratu du.

Argitalpen berri horretan, abesteko eta dantzatzeko 24 jolas aurkeztu dituzte. Jolasak ezagutzeko hiru bide eskaini dituzte, gainera: alde batetik, DVDa, jolasak ulertzeko antzezpenekin; beste alde batetik, CDa, jolasen abestiek; eta, azkenik, liburuxka, jolasen azalpenekin eta abestien letrekin.

Gipuzkoako Urtxintxa Eskolak azken 15 urtetan hainbat erataria landu ditu jolasak: gaia ikertuz eta landuz, hainbat jolas bilduz, informazio guztia antolatuz, aisialdiko hezitzaileei eta gurasoei prestakuntza eskainiz, hainbat herritan hurrekin euskal jolasen saioak gauzatzuz, jolas liburuxkak argitaratuz, jostailuak ekotziz eta abar.

Lan horren guztiaren emaitza jasotzen ari dira, hain zuzen, Euskal Jolasen Bilduma izeneko argitalpenean: 50 jolas bildu zituzten lehen CDROMean. Bigarrenean, beste hainbeste jolas bildu zituzten. Hirugarrenean, *Punpalaplan* izenekoan, 30 jolas bildu zituzten DVD-CD-liburuxkan.

Azken honetan, berriz, herriz herri dabilzan Txantxariak musikariekin batera, taldean abesteko eta dantzatzeko euskarazko jolasak zabaldu nahi dituzte.

Jolasak ikusteko, abestiak entzuteko, baina, batez ere, kalean euskaraz jolasteko tresna izatea da helburua, euskaraz ondo pasatzea, hain zuzen. [www.youtube.com/watch?v=cxUkziT50RE](http://www.youtube.com/watch?v=cxUkziT50RE)

## Komunikaldiak jardunaldiak Eskoriatzan

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, HUHEZI, zazpigarrenez antolatuta, Komunikaldiak jardunaldiak egin zituzten Eskoriatzan (Gipuzkoa).

Aurten bi arlo jorratu zituzten, Hezkuntza eta bideo-jokoak. Bideo-jokoak nola ekoizten diren jakiteaz gain, hezkuntzan nola erabil daitezkeen az-

tertu zuten. Creativity Zentrumen-eko Arantza Atxutxak, *Bideo-jokoak, fenomeno unibertsala baita gurean ere* hitzaldia eskaini zuen. Gaur egun, ohikoak ez diren lekuetan jokoak erabiltzen da, Serious game-ak, adibidez, ikasteko erabiltzen diren bideo-jokoak dira. Osasun arloan, armagintzan edota hezkuntzan oso ohikoak izaten dira joko

horiek.

Jardunaldietan, Euskal Herriko bideo-jokoaren sektorean diharduten hiru lagunaren esperientziak jaso zituzten, eta hitzaldiak ez ezik, bideo-jokoak probatzeko modua izan zen. Bestalde, HUHEZIKo liburutegian gaiaren gaineko libururuak jarriko dira eskuragarri, gaiaren sakondu nahi duen edonorentzat.



Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen azken eztabaidak utzi diguna...

**>>> Espainiako estatuko hezkuntzan hainbat lege aldaketa planteatu ditu gobernu berriak. 166. hik hasi aldizkariko editoriala horretaz ari da. Bertan jarri denarekin ados al zaude? Zein da zure iritzia?**

**>Derrigorrezko hezkuntza murriztea?**

Espainiako estatuko hezkuntza ildo berria Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza urte bat murriztea izango omen da. Nire ustez, astakeri itzela da. Bai, badakit ez dela determinantea, Frantziako estatuan, adibidez, horrela dagoela antolatua. Aldaketa pedagogiko handia ere ez da gertatuko, Bigarren Hezkuntzan, oro har, nahiko konduktista baita, Batxilergoan bezala. Hau da, memorizatu bai, baina ikasi, ezer gutxi. Batek zioen bezala, azterketarako jan eta azterketan bota, gero dena ahazteko. Halakoetan, zer geratzen da?

Hala ere, bada aldea Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoaren artean: hautaproba edo selektibitatea. Batxilergoan denak hara begira jartzen dira, eta, izugarrizko presioa jasaten dute; bai irakasleek, eta bai, ikasleek. Bigarren Hezkuntza derrigorrezkoa izanik, hau da, denontzat, eta, hautaprobarik gabe, lasaixeago ibili daitezke, agian, giro hobean eta gehiago ikasiz. *Fatima*

**>Eredu onak behar ditugu**

Kezkagarriena, irizpide berri horiekin gazteak eskolan nola motibatu litzateke. Jartzen den Gobernu bakoitzak bere Lege Organikoa ezartzen du. Ez dago Hezkuntza Akordiorik urteetan jarraipena emango duena eta etorkizunera begira jarriko duena, ez. Bakoitzak berea egin nahi du, eta ez zaio inporta horrek ekar ditzazkeen ondorio kaltegarriak. Kanadako Ontario lurraldean, adibidez, Unibertsitateak du hango hezkuntza antolatzeko ardura. Egiten diren ikerketak eta ebaluazioak hezkuntzaren zerbitzura jartzen dira, eta sistema hobetzea dute helburu. Berdin dio zeinek gobernatzen duen, zein alderdikoa den agintean dagoena, denon adostasuna baita Unibertsitateak jokatu behar duela paper garrantzitsu hori, eta ahalmena du horretarako. Zer esanik ez dago emaitzak onak direla, ikusgarriak. Zorionak eredu onuragarriak eskaintzen duzuen horiei. Mila esker. *Fernan P.*

**>Konstituzioa menderatu, menderatua izateko**

Hau da, hau! Nork galdetu digu zer ikasi nahi dugun, eta zer ez? Orain, Konstituzioaren baloreak ikasi behar omen dira eskolan. Ez zaie axola guk Konstituzio hori onartzen dugun ala ez, gure herriak konstituzio horri baiezkkoa eman dion ala ez... Ez dute inongo errespeturik herritarrekiko, asuntua da beraien ideiak ezartzea, beraien balioak gureak egitea; hau da, herritarrak derrigortzea, menderatzea... Nik, orain arte bezala, ez diot batere kasurik egingo horri guztiari, eta kideekin lanean jarraituko dut gure eskola proiektuarekin aurrera egiten. *Felipe*

**Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...**

**>>> Proposamen hezitzaile berria laster kalean izango dugu: HAZI HEZI aldizkaria. Ba al du zentzurik, zure ustez, halako proposamenak?**

**Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?**

Zure helbide elektronikoan Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoan harpidetu besterik ez duzu egin behar. [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com) web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

# argitalpenak



## Tartalo begibakarra

Maramara taldea  
MALUTA

Koloreztatzeko liburu honetan Euskal Herriko erraldoi begibakarraren istorioa ezagutuko dute haurrek, euskal mitologian modu dibertigarri batean murgiltzen diren bitartean. Bilduma berean, besteak beste: *Lur gorrian barrena*, *Mari*, *leizezulotako dama*, *Eguzkiaren atzetik*, *Hazi-minak*, *Jentilak*, *gure senide zabarrak*. Txikientzat. •




## Zer gertatzen zaio eguzkiari?

Arantza Ibarra Basañez  
EREIN

Orain dela milaka urte, kondairak dioenez, Eguzkia oso lotsatia eta berezia zen, ez baitzen gaur egungo Eguzkia bezain horia, ez hain beroa, ezta hain alai ere...

Edonon ikusten zitzaion negarrez, eta inork ez zekien zer gertatzen zitzaion. Baina den-denak zeuden bere goibeltasunak, iluntasunak eta hoztasunak kutsatuta. 7-9 urtekoentzat. •



## Erreka

Rafa Ugalde  
IBAIZABAL

Errekaren korronteak ura daroa; han-hemen batzen ditu, eta ibilibidean emaria handituz doa. Urarekin nahasian makina bat bizipen eta oroitzapen ere badoaz, inguruko izaki eta gizakioekin dituen hartu-emanen ondorio. Abenturak, jolasak, maitasunak, lagunak eta une mingotsek osatzen dute erreka emaria. 12 urtetik gorakoentzat. •



## Aitaren pitokeriak

Justin Halpern  
ALBERDANIA


Neskalagunak abandonatu eta lana galduta, gurasoen etxera itzuli eta aita jubilatu berriarekin egin zuen topo. Betikoa aita autoritario, lehor, zakarrarekin... Halako batean, aitaren ateraldiak jasanezinak bezain dibertigarriak zirela ohartu zen eta, egunero, haietariko bat twitterren argitaratzen hasi zen. 10 urtetik gorakoentzat. •



## Marta ispiluaurrean

Teresa Calo Fontán/Mitxel Murua  
ELKAR

Martarentzat sekulako lasaitasuna izan zen gehiago ez entzun behar izatea jendearen galderak, aholkuak, amaren negarrak. Baina, batez ere, guztiz lasaigarria izan zen ez jan behar izatea edo, familiaren aurrean disimulatzeko, jaten zuelako txurak egitea, ezta bokata egitea ere. Martak, 17 urteko neska, bere bizitzako azken hilabeteak gogoratzen ditu ispilu baten aurrean. •



## Behinola

aldizkaria  
GALTZAGORRI ELKARTEA

Kalean da sehilabetekariaren 24. zenbakia. Herri-ipuinek duten ahozkotasan-oihartunak kosk egin eta horren fruituak eman dituzte zenbaki honetan. Elkarrizketak, ipuinak, Hizpide, Hitzordu eta Hitz beste sailak eta Juan Kruz Igerabide ahozkotasanaren gainean solasean Hitzatzean. 14 urtetik gorakoentzat. •

# ... nora joango gara?

## Ataria interpretazio-zentroa: hezeguneetan dago lurraren eta uraren aberastasun guztia



Zer da hezegune bat? Definizio zaileko eremua da hezegunea; ura dago bertan, baina sakonera txikia du ur horrek. Horregatik, zenbait zientzialarik horrela definitzen dituzte hezeguneak: “Oinak bustitzeko balio duten arren, igeri egiteko balio ez duten eremuak dira”. Denbora luzez, hezeguneei ez zaie eskaini merezi duten arretarik. Ingurune natural horiek, alabaina, aberastasun itzelezkoa gordezen dute, fauna eta flora aldetik, bereziki. Hezegune bat bertatik bertara ezagutzeko parada eskaintzen du Salburuko gunek. Gasteiz inguratzen duen Eratzun Berdean, naturagune garrantzitsuena da hezegune hori, eta Ataria interpretazio-zentroa dago bertan. Hezegunea ikusteaz gain, hezegunea bizitzeko aukera ematen du interpretazio-zentroak. Hiritik bi pausora egon arren, naturaren aberastasun osoaz jabetzeko eta hari dagokion balioa emateko lekua da Ataria interpretazio-zentroa.

Eratzun Berdearen ondare naturala eta hezegunearen bioaniztasuna bertatik bertara ikus ditzake Gasteizko Atarriara doan bisitariak. Batetik, oinez nahiz bizikletaz ezagut ditzake hezegunearen aberastasunak, parkean eta



Eratzun Berde osoan barrena egin baitaitezke ibilbideak, urmaelak inguratuz. Interpretazio-zentroaren alde batean, Arkauti eta Larreganako lakuetara joateko bideak aurkituko ditu bisitariak; eta, bestean, Betoñuko aintzirara eramango du bideak.

Ikaragarriak dira parkeak dituen altxorrak, faunari eta florari dagokienez; ahateak, bisoi europarra, dortokak, tximeletak, igelak, karramarroak, zapatariak eta beste asko eta asko ikus daitezke parkean zehar. Hegaztien ko-

munitate handia hartzen du bere luze-zabalean Salburuko hezeguneak, urhegaztien komunitatea, batik bat. Hegazti migratzaile ugarentzat atsedeneku izaten da udaberrian nahiz udazkenean Salburuko hezegunea. Baina hegaztiak ez dira, inondik ere, hezeguneko bizidun bakarrak, begientzat horren ikusgarria ez den oso fauna aberasgarria baitute hezeguneeak. Horrez gain, landaredi bereziak elikatzen ditu hezegunetako biztanleak.

Aberastasun horri buruz gehiago



ulertu eta ikasi ahal izateko, interpreta- zio-zentroan bertan hainbat erakuske- ta ikus daitezke: *Salburuko urmaelak* izeneko erakusketa iraunkorra da ho- rietako bat; eta, bestetik, aldi baterako erakusketak daude, bioaniztasunari eta natura ondareari buruzkoak. Era- kusketez gain, interpretazio-zentroan argazki, panel eta ikus-entzunezkoen bidez, hezeguneko ekosistemaren in- guruko informazio ugari dauka eskura bisitariak, eta uraren jatorriari edota parkeari buruz ere informazio ugari es- kaintzen da.

Handik bertatik, harreragunea eta erakusketa-aretoak hartzen dituen so- lairutik beretik, 36 metro luzeko beha- tokia ateratzen da, eta hori da, hain zu- zen ere, Ataria interpretazio-zentroa- ren ikur nagusia. Balkoi horretatik, mu- gitu beharrik gabe, parkeak ezkatzen dituen altxor ugariak ikus ditzake bere begiekin bisitariak.

Landareak, hegaztiak nahiz beste- lako animaliak ezagutzeko, Salburuko interpretazio-zentroak jarduera ugari antolatzen ditu, ikastetxeei eta familiei begira. Ingurumen Gaietarako Ikaste- giak kudeatzen ditu interpretazio-zen- troaren programa horiek. Hezkuntza- programa zabala dute osatua, hezegu- neei buruzko ezagutza errazteko eta natura-ondarearen garrantzia azaltze- ko; hainbat unitate didaktiko sortu di- tuzte, ikasleen bisitaren aurretik eta on- doren lantzeko. Irakasleentzako mate- rialak ere prestatu dituzte. Horrez gain, ibilbide gidatuak, erakusketak, ikasta- roak, txangoak, lantegiak edota hitzal- diak ere antolatzen dituzte. Izan ere, jar- duera horiek guztiak egiteko leku ede- rrak ditu interpretazio-zentroak: hitzal- di eta lantegietarako aretoak, ekitaldie- tarako aretoa eta ikus-entzunezkoeta- rako aretoa, besteak beste.

Salburuko parkeko landare eta ani- malien jarraipena etxetik ere egin daite- ke, Atariaren webgunetik. Batetik, webcam bat dago Salburuko parkeko urmaeletan, eta hango landareak eta animaliak erakusten ditu. Eta, bestetik, hezeguneko ornitologia-albisteak jaso ditzake interesa duen edonork. ●

## ATARIA, SALBURUKO HEZEGUNEEN INTERPRETAZIO ZENTROA

**Biosferaren pasealekua, 4**  
**01013 GASTEIZ**  
**Tel.: (34) 945 762 696**  
**www.vitoria-gasteiz.org**



### LEKUA

Gasteizko Eratzun Berdean, Salburuko hezeguneetan dago Ataria interpreta- zio zentroa.

### ORDUTEGIA

Asteko zazpi egunetan irekitzen dute.

#### **Neguko ordutegia (azaroaren 1etik martxoaren 31ra):**

- Goizean: 10:00etatik 14:00etara.
- Arratsaldean: 16:00etatik 19:00etara.

#### **Udako ordutegia (apirilaren 1etik urriaren 31ra):**

- Goizean: 10:00etatik 14:00etara.
- Arratsaldean: 16:00etatik 20:00etara.

Bisita gidatuak: astelehenetik ostiralera eskaintzen dituzte, baina aurrez izena eman behar da bisita horietan parte hartzeko. Gutxienez bost lagunek osatuko dute bisita; eta gehienez, hamabostek.



# atzeko atetik



**Xabier ZABALA**

MUSIKARIA ETA KONPOSITOREA  
[www.xabierzabala.com](http://www.xabierzabala.com)

Beti iruditu zait errazagoa pentagramen bitartez adieraztea esan nahi dudana hitzen bidez baino.

Donostiako Ekintza ikastolan 16 urtez musika irakasle gisa aritu ondoren, bizipenak eta pasadizoak ugariak dira. Gordetzen ditudan gauzen artean ikasleek niri erakutsi didaten guztia da; bai, ez dakit nik erakutsi izangonien, baina, beraiek niri emandakoa asko da.

## Miretsi

Lan berri batean hasten garenean, ondo egin nahi dugu eta, helburu horrekin, gerta daiteke (ez du beti horrela izan beharrik) animaliak beraien gidariei jarraituz bezala joatea; hau da, aurre-aurrean, lerro zuzenean, duguna besterik ez ikustea.

Horren aurrean, oso garrantzitsua da errealtatearen ikuspuntu zabala edukitzea, are gehiago hezkuntza munduan. Haurrak eta beraien ideiak txoko guztietan daude, ez lerro zuzen horretan soilik; horregatik, oso garrantzitsua da beraiei entzutea, beraiek baitira, bakoitza bere erara, jarraitu beharreko bidea markatzen digutenak, beraiek azaltzen dizkigute bere kezkek eta, horien bitartez, hezkuntzaren mundu zoragarri horretatik gidatzen gaituzte.

Behar bada, hori errazago ikus daiteke hezkuntza mundutik urrunago urte batzuk pasa ondoren, baina bada

zerbait beti oso argi izan dudana: hain zuzen, irakaslearen eginkizuna gehiago dela motibatzea irakastea baino. Horrela sentitu dut beti, agian beti horrela bizitu dudalako.

Horregatik, irakasle izan nituenen artean, oroitzapen handi eta sakonek ditut, motibatzaile bikainak izan nituenenak. Txikitako motibazioak eta helduaroko grinak dira profesional eta pertsona bilakatu nautenak. Bai, jakina, musikak. Izan ere, bada pedagogi-oinarri bat, nire ustez nire ibilbide profesionala gidatu duena eta zera da: umeari utzi behar zaiola gauzak aurkitzeko plazera. Hori dela eta, lehen motibazioaz niona; norbaitek motibatzen badu, haurrak, bere kasa, aurrean duen guztia deskubri dezan lortuko du.

Zein plazer handiagoa zerbait berria aurkitzea baino?

**Osakidetzak baieztatu duenez, Gasteizko ikastetxe bateko hamahiru ikaslek eta irakasle batek ezkabia dute. Azaleko eritasuna da ezkabia.**

**berria**

HAURREN HEZIKETARAKO EGUNEROKO GIDA 1. ALEA

# Hazi Hezi

*Hilabetea falta da HAZI HEZI aldizkariak argia ikus dezan. Argitaratu aurretik eskatzen dutenei, DOAN bidaliko zaie. Beraz, aprobetxatuz ezazue horretarako izango den azken aukera.*





ELHUYAR  
edizioak

Hodeik ez ditu zientziak bereziki gustuko, baina Estibaliz zientzialari iaioa ezagutu duenean, zientziekiko duen ikuspuntua aldatzen hasi da...



Zuk noren  
aldeko  
hautua  
egiten  
duzu?

Zientziak  
ala giza  
zientziak?

ZzL

12-16 urte

Gazteentzako zientzia-narrazioko irakurketa-liburua, zientziaren eta literaturaren arteko zubia.

2011ko CAF-Elhuyar sarietan Gazteei zuzendutako zientzia-narrazioak kategorian saria jaso zuen proiektuaren emaitza da liburu hau.



**% 10  
merkeago**  
eta  
bidalketa-gastuak  
DOAN

**Liburuaren Nazioarteko Eguna  
ospatu dezazun, zientzia eta euskara  
% 10 merkeago**

Elhuyarren produktuak % 10 merkeago eta bidalketa-gastuak doan apirilaren 23tik maiatzaren 7ra.

Sartu webgune honetan: [www.elhuyar.org/edizioak](http://www.elhuyar.org/edizioak)

[www.elhuyar.org/edizioak](http://www.elhuyar.org/edizioak)

